Lenengo orrialdetan, zati berriak, garbi ikusten dira. Gero idazleak ez digu argitasun aundirik ematen, batzuek eta besteak egiten duteneri buruz. Antzerkilari batzuen ekintzak ikusten ditugu baiñan garai berdiñean ez dakigu nun dauden besteak. Nornaik antzerkia agerterakoan, zalantzan uzten ditu ateraldiak, askatasunaren aukera izate arren. Baiñan dana dala azkeneko zatia luzea da ta arremanak, asieran baiño lotuagoak deritzaizkigu.

Bukaera aldera, idazleak «Amaya» ipintzen du paperan eta gero aztiak datozela esanaz jarraitzen du. Orduan nola amaitzen da antzerkia?, egiten dugu galdera; «Amaya» ipintzen dunean edo norbaitek olagainean aztien etorria adierazterakoan? Gure ustez, antzerkiaren bukaera, aztien berriak emateakin, amaitzen da. Barrutia'ren idazkia ez da irakurtzeko bakarrik, azaltzeko baizik egiña dago.

GAIEN LERROTZEA

Gai nagusia, ardatza bezala dabillena, Salbatzallearen jaiotza da. Gai au eskutik artuta dabilkitenak San Jose ta Maria dira. Auek agertzen dizkiguñenak, Berri Onatik artuak daude.

Deabruaren agertaldiak berriz, idazleak bere gogotik sortzen ditu. San Jose ta Maria'k eukitako ostopoak, arpegi ta adarrekin erakutsi nai dizkigu. Deabruaren ateraldia, bere ustez bakarrik etzaio sortu; kristau gizagi-roan zegoen garai ortan. Entzulen adimena erne eukitze arren ta ipuiari garra emate arren sortzen du borroka.

Borroka ondotik berriz, Berri Onaren alorrera dator idazlea; artzaia dakarzki. Aingeruak Berri Ona azaltzen die ta mendi mutillak ortxen doaz Belen'go aterpera, Jesus gurtu ta agurtzera.

Idazleak erabiltzen duen aria ondo sortua dago. Asiera errax dijoa; poliki bere bidetik. Gero oztopo nagusiak ta borroka sortzen dira. Azken aldira, bare ta paketsu amaitzen zaigu antzerkia.

JAINKOELEAREN KUTSUA

Antzerki osoak elburu bakarra dauka; kristau sinismena ta kemena zuzpertzeta. Idazleak, garrantzi aundiena Jainkoaren ekintzari ematen dio; Salbatzallea sortzeari.

Erderaz uzten dizkigun bost abestiak Jainkoaren ekintza adierazten digute ta gai osoa ondo lotuta uzten digu. Euskarazko beste bi

abesti ederrak berriz, Jainko Itzaren mamia indar aundiarekin ta xetasun ugariz agertzen dute.

Ikus ditzagun orain aipatutako mamiaren gaiak.

Lenengo txostena: Jainkoak naita era guztietako emaitza sortzen du, baita bere aukeratuentzat banatzen.

Bigarren txostena: Jainkoak ondasun aundiak zabaltze arren, Maria aukeratu du, batez ere ludiko obenak garbitzeko, bereziki Adan'en jokaera txarra desegiteko. Emakume onen sabeletik sortuko da Salbatzallea.

Irugarren txostena: Jesus, amaren sabeletik ari da Jose ta Maria'ren urratsak zuzentzen. Asmo orren garrantzia ez da nolanaikoa; jaio gabeko aur ori guztiz indartsua dugu. Orrelako gidariakin ez ditek oker ibilli.

Laugarren txostena: Jainko naiaren itzalean dabillanak egiaren eskua ez du beñiere galtzen.

Bostgarren txostena: indar txar asko, Jainkoaren aurka gorroto ta gordinkerietan dabiltz.

Seigarren txostena: gizaldia galduta bezala dago.

Zazpigarren txostena: Jainkoaren biotz zabalak, Salbatzallearen bi-tartez, gizonak, obenaren gaitzetik garbitzen ditu, baita buru gogorrek aldatzen. Biotzaren aldaketa, lenengo euskarazko abestian aipatzen zaigu.

Zortzigarren txostena: egitazko Jainko zaletasuna, Belen'go oialtxo aurrean agertzen da.

GIZAEKINTZAREN ZUZENKETA

Antzerkiaren elburu nagusia, blotzen aldaketa da. Antzerkilarien jokabideak, entzulea bide berdiñetik joaten laguntzen dute. Antzerkilarien jokabidea garbia da: erriko gizabizitzak azaldu, bakoitzak daraman jokabidea aztertzeke ta azkenean dan danak Belen'go aterpean biltzeke.

Antzerki au Eguerritako ekintza nagusiari oso lotua dago ta bat batean elburu ortara zuzendua. Gaiñera, antzerki onen garaia, urte mugan, bat bakarra da; Eguberria.

Antzerkiko entzuleak, begi belarri, bi gaiekin oso lotuak daude. Bat; Jesus'en jaiotza, aspergabeko gaia bai da. Bigarren; antzerkitan batzuen eta besten jokabideak, dan danak Jesus'en jaiotzari zuzenduak daude.

Antzerkilariiek aldatzen nola dijoazen, ikusten ari dirala, entzulei, barruko lokarriak eta eragozpenak askatzeko laguntza ta indarra sortzen zaie. Aurtxo onen jaiotzak, giza-emazte guztien adimenari, so-las egiten die, baita eskeintza berri bat adierazten.

Antzerkiak dabilkin berria gaiñera jaiaren kutsua dauka; aurtxo baten jaiotza, opariak eta agurtza. Dan dana Eguberriko giroari lotua dijoa. Giro orren elburua, bakarra da; Salbatzallearen jaiotza agertzea ta gizadiaren biotza berritzea. Berritze ta jaiotza orrek beste gauza bat adierazten du; azken garaietako zoriontasuna ta Jainkoaren aintza guztioi eskeintzen zaiguna.

Antzerki ontako itzak eta ekintzak elburu bakarra dute; Eguberriko jaiak ospatzeko, erria bear bezala esnatu.

AXALEKO ALDERDIAK

Gure antzerkia itxura aldetik begiratuta, berealaxe zerbaiten antza ematen diogu; mailla baten lerroa.

Ikus dezagun ba, nola dagon lotua axaleko itxura ori. Ekintza batzuen asieran abesti ederrak arkitzen ditugu. Aurreneko bostak erderaz ta gero beste bi euskaraz.

Nola dauden lerrotuak ikusita, zerbai esan nai digute.

Aurreneko erderazko bost abestiak San Jose ta Maria'ren ekintzari lotuak daude. Abesti oiek Sendi Santuaren bidea bakantzen dute.

Euskerazko abestiak berriz, antzerkiko garai garrantxitxuenak laguntzen dituzte; jaiotzaren berri ematea ta bukaeran antzerkiaren muiña ta esanaia azaltzeko.

Orain borobildu dezakegu emandako argitasuna, esanaz, abestiak Jainkoaren edestia ulertzen laguntzen digutela. Abestiak Jainkoaren ekintzak apaintzen eta goraltzen dituzte ta garai berdiñean, ludiko gaiak beste mailla batean uzten dizkigute. Gure antzerki ontan, sinismenaren alorra abestiak apaintzen dute. Parragarrizko zatiak, berriz, ludiko zekentasuna piparrez gazitzen dute. Orrela bi mailla dauzkagu; Jainkoaren elea goi maillan abestiekin ta gizadiaren zorakeriak beko maillan gordiñik.

Axaleko alderdiak ere zerbait esaten digute; nola lerrotu zuen egilleak Eguberriko antzerkia.

ANTZERKILARIAK (Nortasunak eta Itzen giroa)

Nortxuek agertzen zaizkigun antzerkian aztertu bear ditugu, baita ere esanən indarra jaso. Orrela bakarrik jakin dezakegu antzerki onen giroa.

Lenengo antzerkilaria ikusten duguna, **San Jose** da. Idazleak oso era ezberdiñean idazten du gizon onen izena. Egillearen itzak azaltzerakoan guk ere idazlearen izkiak erabillo ditugu. San Jose'ren izen ezberdiñ guzti oiek, gauza bat adierazten digute: erriarentzat oso bertakoa ta ezaguna dala.

San Jose, Maria'ren senarra da ta Jesus'en aita ordezkoa. Aurreneko aldian agertzen zaigula, oso senar berri zorionsu bezala ikusten dugu. Gero oso eroria agertzen da, emaztearen izorra jakiten dula. Maria aur zai dago ta aur ori ez da Jose'rena. Aingeruak lasaitzen du. Zesar'en itza ondotik, Maria Belen'era darama. Ostatuko atea deitzen du. Gero berriz, azken aldean aur jaio berria, estalpean gurtzen du ta artzaiekin itzen bat dauka. Amalau aldiz itz egiten du.

Gizon zuzen, garbi ta zuzper bezala agertzen zalgu. Garaiko etxetik dator: «Dabiden semea» deitzen du Itun Zarrak. Sendiaren buru ta gidari bezala ikusten dugu. Ez dago illunpean gelditzen. Erabaki nagusiak artzen ditu. Sendiaren izenean ostatuan sarrera eskatzen du. Kementsu sinismena zuzperten dijoa. Nai duna garbi adierazten du. Zuzena dana alai betetzen saiatzen da. San Jose'ren jokabide jatorra, antzerkian, zati danotan agiri.

Antzerkian, bigarrena agertzen, **Maria** da. Idazleak beti «Virgen» izena ematen dio. Izketan asten dala, batek eta besteak, Maria, Zeruetako Erregin, Jainkoaren Ama deitzen dute. Emezortzi aldiz itza artzen du.

Asieratik amaitze arte ia beti San Jose'rekin batean dabil. Azkenean bakarrik ditu arremak ugari artzaiekin. Antzerkiaren mami sakonena eskutik darabilki. Etxeko ondorioari begiratzen dlo. Emakume zuzena, txukuna ta itz neurrikoa dugu. Jainkoaren Ituna barren barren-dik ontzaz artzen du. Senarraren itza betetzen saiatzen da. Etxeko atea arrotzarentzat zabalik dauzka; pozik artzen ditu auzokoak. Jainkozale dugu ta Israel erriaren jokabidea ondo ezagutzen du, baita blizirik aitortzen. Semearen jokabide nagusia argi agertzen du. Ia azken aldira, gizadi osoaren ama bakarra bezala ikusten dugu. Gizaseme danak begi aurrean ditu.

Itz gutxikin esanta, Maria antzerkian emazte ziña, ama benetakoa ta babes zabala dugu.

Esan bearrik ez dago, baiñan aipatu nai dugu, Maria'ren ekintza Berr Onaren elean agertzen zaigula.

Gizaseme garrantzitsuena antzerkian, **Aur jaio berria** dugu, baiñan era bat ixila, itzgabekoa. Ekintza danen ardatza da, baiñan ez du itzik egiten. Antzerkilari bezala ez dago aipatua. Jesus edo Jesusa izena ematen diote euskeraz. Neurri gabeko indarra aitortzen diote; «Jaun aundivat», «Xaingoicoa», «Zeruco Erregue», Infante», «Mesias prometidua».

Gurasoek Belen'era dijoaztela, egiten zaigu aur onen aipamena aurreneko aldiz. Amaren sabelean dagola, salbazioaren bideak atontzen alegintzen da. Aurtxo au, naiz sabeleko itzalean izan, gurasoak bide zuzenetik darabilzki. Arpegi guztien aurrean, azken aldera bakarririk agertzen da, artzaia gurtzeko garaian. Batzuek eta bestek, aurrez aurre itz egiten diote.

Jose ta Maria'rekin batean, **Aingerua** ikusten dugu. Idazleak, «Angel» deitzen du beti. Maria ta Josek «Enexauna» esaten diote. Goi maillako izenak ere jasotzen ditu, «zeru altuko mandataria» eta «Zeruetako Xaunaren anguerua». Sei aldiz itz egiten du. Jose ta Maria'rekin alkarizketan dabil. Salbatzallearen aurdun izatea Maria'ri eskeintzen dio ta gertatukoan jakiñen gaiñean Jose jartzen du.

Ia azken aldira, Artzaiei Aingeruak Salbatzallearen jaiotzaren berria ematen die ta gero estalpean Sendi Santua agertzen. Sendi Santuaren indarra adierazten die; Maria Jainkoaren Ama, Jose aita ordezkoa, Aurtxo Salbatzallea.

Aingerua, Berri Onako eletik artua dago. Artzaiei, Aingeruak, Sendi Santuari egiten dion aurkezpena, idazleak asmatua dago.

Aingerua antzerkilarien artean iru aldiz agertzen zaigu.

Erregearen Ordezkarria, Zesar'en mandatua ematera dator. Parregilleakin bakarrik itz egiten du. Zerga jasotzeko bide bakarra irakusten du; jaiotz errietan gizasemeak batutzea. Gertakizun onen otsa Berri Onak ateratzen du.

Parregillea, lenengo aldiz, Erregearen Ordezkariekin arremanetan ikusten dugu, Barrutia'ren antzerkian. «Gracioso» izena jasotzen du. Beste izen ugari ematen dizkiote; batez ere deabruak. Asmodeok, «Charles tripazaval, mendietako ongura» deitzen du. Berzebuk itz gordiñagoak dauzka Parregillearentzat: «mutil balz, Vergaraco danzari coplaria, gure morroe alper cazadorea». «Chatok» bakarrik dauka itz eztitxoa; «Charlesicocho» deitzen du.

Gure Parregilleak, ere, bere aldetik, maite ditu izen arrotz ta gordiñak. Bein «Jauna machi frifrai» sorgin izenarekin agertzen da. Beste batean berriz, «Tontorronton» bezala Asmodeo'ren aurrean arpegia erakusten du.

Antzerkilarien artean geiena lan egiten duna dugu; 24 aldiz itz egiten du.

Aurreneko aldiz, Erregearen Ordezkariekin agertzen da. Bigarren aldiz, deabruekin batean ikusten dugu. Ez dute nolana artzen; larrutua uzten dute. Une txar ortan, bere burua gaizki ikusten dula, emazteari deitzen dio. «Marigavon» delakoak ez du aski goxatzen; elbarritua uzten du bide bazterrean.

Naigabe guztien atzetik, Parregillea, artzaiekin solasean ikusten dugu.

Antxen dago danekin batean, Aingeruak artzaiei Berri Ona dakarrienean. Aur jaio berriak aldatzen du era bat. Gaiztoa dana ona biurtzen du. Parregilleak, Jesus'i, gurtu ondotik laguntza eskeintzen dio. Nortasun berexi auxe dugu antzerkiko jokabidearen giltzarria.

Txarra bainan geiago da, gaiztoa. Ez ditu bazterrak pakean uzten. Borrokalaria dugu. Mingaiñ gordiña du. Deabruak zirikatzen saiatzen da. Artzaien auleriak ondo ezagutzen ditu. Danei parra arpegira egiten die. Baiñan gizon argala dugu. Deabruak ezurak austen dizkiote ta oien laguntzaille ameztea azaltzen zaio.

Gizaseme gordiña dugu; alaiā baiño geiago gazia. Itz egiten, gorputz eta mingaiñarekin daki. Parrandazalea da. Zozoaren antza du, baiñan danak gallentzen ditu solasean. Gizasemearen argaltasuna axaletik ezagutzen du. Sortzen zaion gogoā bete nai du. Ustekabea auxe da; gizon onen ezin egona, naiz neurrigabekoa izan, azkenean baretzen da. Antzerkian nolanai jokutzen du, ikaragarritzko askatasunarekin. Aldatzen dijoakion nortasuna dauka. Zozoaren ateraldiak ditu ta errex gallentzen ditu beste danak.

Len aipatu dugun bezala, Salbatzallearen jaiotzak ere bat aldatzen du. Gaiztoa, ona biurtzen da. Aldaketa au berriz, ez du bakarrik egiten. Beste zerbaiten edo norbaiten bearra nabaritu bear du, eziñezkoa gertatzeko. Aldaketa au da benetakoa, arrigarrizkoa ta Jainko aldetik datorkiona.

Esan dezakegu, Parregillea, beti jauzika ikusten dugula. Batzuetan danboliñaren ota naikoa du, bestetan berriz agertaldi batzuetatik urrengoan ain zuzen sartzen da. Jauzirik aundiena biotzaren aldaketa da. Orregatik antzerki entzuleak ez dute begitik galtzen ta dan danak aldaketa berri ortara daramazki. Bide onera txarretik dagon ari luzea, nolanai eskuratzen die.

Gizanortasun au ez da Berri Onaren elean agertzen. Idazleak asmatu du ta eskutik nai duen bezala darabil, entzuleak lasaitzeko, baita batzuen eta besten zentzuna argitzeko. Parregilleari esker erakusten digu aur jaio berriaren indarra ta itzala. Zoro onen jokabide osoa ikusita, Salbatzallearen etorreran esanaia, danak ulertzen dute. Parregillearen jokabidea alderdi ontatik ikusita, garrantzi aundikoa da. Entzuleen begi belarriak adi jartzen ditu ta edozein buruan ba daki azi

berexia sartzen. Orrela Jainkoaren arnasa nolanaiko biotzetara jeixten da. Danak errex ikus dezakete nola esna ditekera sinismena biotz galduetan.

Parregilleak danetan sugurra sartu bear du ta erantzunak ezker eskubi botatzen ditu. Diruaren otsa azaltzen danean, asmoa janari goxoetara dijoakio. Deabruekin lotsagabena da. Baiñan ez da dana indarkeria, ortxen agertzen zaigu jota emaztearen aurrean. Gizon izateko zerbaiten bearra dauka.

Artzaiekin beti illea artzen dugu. Danak esku ondoan eukiko ba litu bezala, dabilzki.

Aingerua berriz, letraduaren gisan azaltzen du: «Arpegico narru ederrac pergaminoac dirudi, pergaminoa bustita, gero eracutsita suari».

Azkenean, Parregillea, gizon berri bat egiña agertzen zaigu, era bat aldatua.

Parregillearen sortzeari buruz zerbait esan bearra dago. Gizonortasun au ez dugu Berri Onatik sortua, idazleak asmatua da, baiñan aztarna ugari arkitzen ditugu, Españi'ko urre garaiko elertian. Juan zozoa, Españi guztiko larru zabalean ezagutzen dute. Gizon zozo bat dugu, baiñan jakintsuak astintzen dituna. Irudi au erriko ele ta ipuietan zerabilkiten, gero idazle ospetsuak eskuratu zuten eleberriak egiteko.

Gure idazleak gogotik sartzen du Parregillea Eguberriko antzerkian. Nai duen bezala erabiltzen du, baita etekiña ateratzen. Azkenean, nortasun gorri ta gazi au era bat aldatzen ta kristautzen du. Parregillearen aldaketa onek asko esan nai du; gizonen gaitzak garbitze arren Salbatzallea sortu dala. Salbatzallearekin argitasun berexi bat dugu gizadiarentzat. Giro berriaren ezaugarria ortxen dugu; Parregillearen aldaketa onek asko esan nai du; gizonen gaitzak garbitze arren Salbatzallea sortu dala. Salbatzallearekin argitasun berexi bat dugu gizadiarentzat. Giro berriaren ezaugarria ortxen dugu; Parregillearen aldaketa. Antzerkiaren aldetik, Parregilleak, gatza, piperra ta irria sortzen du, irakaskintzaren aldetik berriz eredu ederra. Bi elburu oiek ondo lortu ditu idazleak.

Entzuleak, Parregilleak ondo lasaitzen ditu eta bukaeran egitazko barruko aldaketa zer dan agertzen die. Alderdi ortatik ikusita, gure antzerkian, Parregilleak entzule ta gizaseme otzak Belen'go aterpera urbiltzen ditu.

Antzerkilarien artean, «**Chambolin**» aipatzen digute. Ez da gauz aundirik esaten, «Zer sonu?» baizik. Garai ortako Euskalerrian txanbolin zan, parranda ta jai guztien gidari. Txanbolinen otsak zuzentzen zituen batzuetan elizako bideak, bestetan jaietako jauziak. Esan deza-

kegu, jauzirik gabe jairik etzegola, eztare txanboliñik gabe jauziak egi-terik. Ori bera adierazten digu Parregilleak orduko itzekin: «eman daiztan saltovi».

«Tomas mesonero» delakoa, arkitzen dugu antzerkian; **Tomas ostatulari** deituko dugu. San Jose ate joka dabillela agertzen zaigu. Batez ere, morroiekin, aserre ta gordin, zazpi aldiz itz egiten du. Gero ezku tatzten da. Nolabait morroia astindu nai du. Nortasun onen aztarna, nolabait Berri Onan aipatua dago.

Ostatulariarekin, «Chato criado» delakoa azaltzen da. Guk, **Morroï sugurmotza**, deituko dugu. Amar aldiz itz egiten du, batzuetan nagusiarekin ta bestetan San Jose'rekin. Sugurmotza bezala agertzen digute ta alderdi txar askokin inguratua arkitzen dugu: lotsagabe, alper eta abar. Nagusiak adierazten dizkion itzak ez dira goxoak: «mutil losavague desbergonzadu perroa».

Idazleak ezin zuen obeto aukeratu, ostatuko arpegi txarra azalzeko. Orrelako gizonekin ostatuaren atea Sendi Santuarentzat ondo itxia zegola adierazten digu idazleak.

Ostatulari ta morroien ondotik, deabruak datozkigu. Aurrenetik **Luzifer** datorkigu, Aingeru erorien buru. Itza, bein egiten du, 31 lerroko itzaldiarekin; berriketa luzea. Izen aundi askokin agertzen digute: «Prinzipe andia, demonio guztien agintaria, Luzifer altivo sovervioa». Gorroto ikusgarria dio jaio berri aurtxoari. Ezin erabillitako miña erakusten du. Maria'ren garbitasuna ezin du irauntsi, Jainkoaren gogo ona ezin ikusi; ezin du alaitasunik agertu. Ba ditu beste laguntzailleak eta Herodes aipatzen du adiskide bezala.

Nortasun au ez dugu Berri Onan aipatua ikusten. Itun Zarreko beste alderdi batean dago jaso: «Egunaren Izarra», ematen diote izena, Isaias'en liburuan (14/12). Nunbait izen ori bera Babilonia'ko erregeari opa zioten. Elizako Gurasoak, Igarlearen aipamen ontan seidotzen dute Luzifer'en galera. Gai ontaz geroxeago zerbait esango dugu.

Luzifer'en atzetik **Asmodeo** agertzen da. Luzifer'en laguntzaille bezala, lau aldiz itz egiten du. Ez dugu Berri Onaren elean ikusten. Tobias'ek aipatzen du (3/8). Itun Zarreko liburu ortan 7 senargai iltzen ditu ta orregatik «Iltzaillea» deitzen dute. Salomon'en liburuan eskontzaren etsaia bezala agertzen dute.

Irugarren deabrua, **Berzebu** dugu. Antzerki tokian Asmodeo'rekin sartzen da. Iru aldiz agertzen da ta Jesus'i datozkion naigabeen berriak ematen dizkio. San Mateo'ren Berri Onan (12/24) bein arkitzen dugu deabru onen aztarna, fariseotarrak Jesus'i diotenean: «Belzebul'en izenean askatzen ditu deabruak».

Kana'ko sasijainko bat dugu Belzebul. Izen onen esanaia «Baal

Erregea» da ta ez Baal gorozlaria, batzuek dioten bezala. «Itsas Illa» delako paper zarretan, Satan deitzen dute.

Gero agertuko ditugun arrazoi batzuegatik, aipatzen du emen gure idazleak.

Orain arte ikusi ditugun Aingeru erori auek, beste deabru batzuen izenak eskuratzen dizkigute; Baal, Belial eta Leviatan. Danak alkarrekin dabilte, baiñan ez dute itzik artzen. Berri Onaren elean ez ditugu ikusten. Gero esango dugu zergatik idazleak aipatzen ditun emen.

Baal, Epailen liburuan (2/13) agertzen zaigu; «Israeldarrak bizkarra ematen diote Yawe'ri ta Baal gurtzen dute». Baal, Kanan'go sasi-jainko baten izena da.

Belial, Deutoronomio liburuan (13/14) arkitzen dugu: «Belial'en gizaseme batzuek, sasi-jainkoak ontzaz artu bear ditugu». San Pablok Korintotarrei egindako bigarren eskutitzan (6/15) esaten zaigu; «Belial Kristo'ren aurka dabil». Berez Belial, sasi-jainkoa dugu, deabrua delakoa.

Lebiatan, bi aldiz aipatzen da, Job'en liburuan (3/8 - 40/25). Feniziotarren sasi-jainkoa dugu ta erensugearen antxa ematen diote. Baztarrak nasten ditu. Eliz Gurasoentzat, Apokalipsis liburuan azaltzen dan sugea dugu. Kristau ele zarretan beste deabruekin batera biltzen dute.

Deabruen berri billa genbiltzala, Lamia delako, Fenizia'ko sasi-jainkoa arkitu dugu. Barrutia'ren antzerkiarekin ez dauka zer ikusirik, baiñan bai euskal sorgin jakintzarekin. Gai au darabilkitenentzat eskeintzen diegu berria.

Galdera bat, nunbaitetik sortzen zaigu: zer ikusirik ba al dauka Jesus'en jaiotzak deabruekin? Zergatik alkartzen ditu idazleak bata besteakin antzerkian? Goazen ba ariaren billa.

Berri Onaren elean txosten batzuek ematen zaizkigu: San Judas'en eskutitzan (9'garren atalan), Satan ta San Migel'en arteko burruka aipatzen zaigu. Judutar ele zarretik jaso dute berri au, batez ere Moises Zeruratze delako liburutik. «De Principiis III, 2» delako liburuan, Origenes'ek eskuratzen ditu xeetasun abek.

Apokalipsis liburuan (12/1 - 17) erensugea, aurdun emakumearen aurrean gelditu zala, aurra iltzeko asmoakin, diote.

Enok'en liburuak, deabruak aingeru galduak bezala azaltzen dizkigu. Lendabizi, Jainkoaren laguntzailleak ziran. Asmo txarrek galdu zituzten. Gero sasi-jainko dan danak deabruekin batean biltzen dituzte.

Eliza Gurasoak, berri guzti oiek aztertzen zeudela, argitasun batzuek eman zizkiguten; batez ere deabruak aingeru galduak zirela ta danen buru Luzifer.

Gai oneri buruz, bigarren gizaldiaren bukaeran, liburu bat idazten

duena, Alexandria'ko Klemente dugu. Liburuari, «Peri Angelon» izena eman zion.

Irugarren gizaldiaren bukaeran, San Ireneok, Aingeruen arteko borroka bat aipatzen du. Aingeru erorien galera, norberia izan omen (Contra Haereses L. V, C. XXIV, n. 3, col. 1188).

Nazianza'ko San Gregoriok dionez, Aingeruak, Luzifer'en aundinaiak galdu omen zituen.

Mans'ko Ildebertok, XIII garren gizaldian, aingeru erorien ordeztuak sortu zituela Jainkoak, dio. Nunbait garai ontan asita eliz izlariak itzaldietan gai au asko erabiltzen dute.

Loiola'ko Inaziok ere «Gogojardunetako» liburuan agertzen du Luzifer.

Amasei garren gizaldian, Suarez teologoak, «De Angelis» liburuan auxe esaten du: Luzifer'en okerra, nunbait, Jainkoaren semea izango etzala ludian, jakitearekin sortu zitzaioa. Danez gain agertu nai zuen.

Gure antzerkiaren garaian, aingeru eroriak asko aipatzen zituzten elizako itzaldietan. Deabruen iru borrokak azaltzen, saiatzen ziran; bat zeruan izadiaren asieran, bigarrena Adan galtzerakoan (orregatik, Jesus, Adan berria, jaiotzerakoan ain gogor artzen dute), eta irugarrena gizaseme bakoltzarekin.

Orregatik, antzerki au idazterakoan, kristauak ba zekiten, Luzifer, kide txar guztiak biltzen zebillela, aur jaiotzerakoan asmoarekin.

Jainkoak, salbazioko asmoak Luzifer'i erakutsi zizkionean, onek, «Non serviam» erantzun zion; «iñolaz ere ez dut ontzaz artzen», esan nai du euskeraz. Deabru danak galtokira eramatea, Jainkoak San Migel'eri agintzen dio. Orregatik, Luzifer'ek Jesus'en jaiotzarekin ikaragarrizko zalaparta ateratzen du, antzerkian.

Erriak ikasiak dauzka berri guzti oiek eta oso errex ezereen beldurrik gabe sartzen ditu idazleak antzerkian.

Deabruak, Parregilleari gogor egiten diotela, ortxen datorkigu **Marigabon**. Esan dezakegu, Parregilleak ez daukala nolanaiko emaztea. Senarrari lagundu bearrean goitik bera artuta ondo astintzen du. Sei aldiz itz egiten du ta gozotasunaren eza agertzen digu. Senarra aur galdua bezala azaltzen zaigu. Emakume onen aztarnak ez ditugu ikusten Berri Onean. Idazleak sortu du Parregillearen nortasuna obeto ezagutzeko.

Ondotik artzaiak datoz; danak zenbatuta zazpi dira. Parregillearekin antzerki olan alkartzen dira. Batzuek, Aingeruaren berri emate aurretik, ikusten ditugu, besteak berriz ondotik.

Artzaien aztarna, Berri Onak eskuratzen digu. Bakoitzaren nortasuna ta itzak idazleak asmatzen ditu.

Lenengo artzaia agertzen, **Beltran** dugu. Iru aldiz dabil izketan.

Onek agurtzen du Parregillea ta erdi edana dagola, dio. Aurtxoaren jaiotza entzun ondotik, zeñen ederra den Aingerua esaten digu, batez ere nolako otsa duen.

Parregilleak Beltran'i «Beltranicocho» deitzen dio. Legun itz egiñez «aleyzaco examinadorea» bezala agertzen digu ta gero astoa delakoan uzten du.

Bigarren artzaia Parregillea agurtzen **Lorenzo** dugu. Bi aldiz itz egiten du. Lendabizi, Parregilleari zerbait esaten dio ta aingeruaren agurketa ondotik aurrena da berriz solasean.

Atzetik **Gabriel** dator. Berri Onako Gabriel Goiangeruarekin ez du zerikusirik. Artzaia bezala ikusten dugu baiñan danen artean bikañena da. Parregilleak nunbait ondo ezagutzen du. Garaietxe zabaleko semea bezala ikusten dugu. Sei aldiz itz egiten du. Gizon egoki au lenengoa da Belengo aterpean sartzen. Esnea eskeintzen dio Jesus aurtxoari. Azkena bezala ikusten dugu antzerkian, aurtxoari itz egiten dio, baita «Zeruko Erregea» deitzen. Ondotik jauziak eskeintzen dizkio. Artzai oneri buruz xeetasun asko ematen zaizkigu; danak, daukan jaiotzea ezagutuko ba lute bezala.

Tomas'ek berriz, bein bakarrik itz egiten du, Aingeruaren bikaintasuna aipatzeko. Parregilleak maizale delakoan, ots egiten du.

Aricha berriz iru aldiz agertzen zaigu. Parregilleak adiskide bezala, itz egiten dio; «Arichavalcho gurea» deitzen du. Nunbait artzai oneri jatorriko erriaren izena eman diote. Erri au, Arichabaleta, Arrasate inguruan datza. Parregilleak «zezen toreadorea» deitzen du. Nunbait gure artzai oneri illea artzen atsegin zaio. Jesus gurtzera azkeneko unean dijoa. Gogo osoa ta itz xamurrak eskeintzen dizkio aur jaiotze berriari.

Chato edo «**Sugurmotza**» delakoa, artzaiekin dabil. Ez du ematen ostatuko morroi sugurmotza danikan. Aingeruaren berria ez du ontzaz berealaxe artzen.

Aseguinzoro, bein agertzen zaigu. Izen au euskaraz bai dala egokia gure Parregillearentzat. Ez dugu uste antzerkiko gizasemearen berdina danik. Nunbai idazleak artzai erdizoro bat agertu nai zuen. Ustekabean jakin du Jesus'en jaiotza ta oparia eskeintzera datorkio. Opari au gure erri ta baserrietan aur berri dun amari eskeintzen zaio.

Egoki deritzaigu, antzerkilariak, errenkan azaltzen diran bezala ipintzea ta zenbat aldiz itz egiten duten agertzea.

San Jose (14)	Luzifer (1)
Virgen (18)	Asmodeo (4)
{Jesus}	Berzebu (3)
Aingerua (6)	Marigabon (6)
Ordezkaría (3)	Beltran (3)

Parregillea (24)	Lorenzo (2)
Txambolin (1)	Gabriel (6)
Tomas ostatularia (7)	Tomas (1)
Morroï sugurmotza (10)	Aricha (3)
	Sugurmotza (1)
	Aseguinzoro (1)

Egokia da bereziki jakitea, nortzuk dabiltzan txapeldun solasean:

Luzifer (9 garren or.)	31 lerro
Parregillea (17 garren or.)	26 lerro
Parregillea (11 garren or.)	25 lerro
Aingerua (18 garren or.)	24 lerro
Parregillea (23 garren or.)	16 lerro
Maria (2 garren or.)	14 lerro
S. Jose (4 garren or.)	12 lerro
Aseguinzoro (21 garren or.)	12 lerro
Parregillea (22 garren or.)	12 lerro

Itzaldi luzenak Luzifer ta Parregilleak dituzte.

Berri Onako kideak ixillaguak ditugu.

GIZAGIROA: NORTASUN ETA ERRI TANKERAK

Ezin dugu ukatu, giza nortasunaren aldetik oso berri aberatsak jasotzen ditugula antzerki ontan. Esaten zaizkigunetik korapillo asko lotu ditzazkegu, emezortzi garren gizaldiko Euskalerrria'ri buruz. Ez ditugu gizanortasunak bakarrik, baita erri batzuen alderdi nabarmenak. Asi gaitezen ba aria biltzen.

Euskalerriko gizagirotan ori ezagutzeko, idazleak bide zabala iriki digu; Berri Onaren gaiari, Arrasate'ko nortasun eta gazi-gezak erantsi dizkio. Antzerki onen bidez Eguberriko gaian murgilduak gaude ta garai berdiñean Arrasate'ko kezkek eta jokabideak ezagutzen ditugu.

Gaiñera itzak beti beste zerbaiten oñarriak eskuratzen dizkigute. Nortasun batzuek besten aurka daudenean, ezin eraman orren azterketak, beste argitasun batzuek ematen dizkigute. Orregatik antzerki ontan berri asko jaso ditzazkegu.

PARREGILLEA BERRI ASKOREN GILTZA

Oso aberatsa, berriak ematen Parregillea dugu. Erriko gizanortasunarekin oso lotua dagola deritzaigu. Askotan erriaren izenean itz egiten du: «Gure Mondragoen pagazen dogu dirua... mutiloc pagadu... mutilac libre» (Bostgarren or.).

Zesar'en Ordezkariak, zergan asmoa agertzen dunean, erriaren ordezkari Parregillea ikusten dugu. Parregillea elkarte baten ezaugarri bezala ageri da. Idazleak Parregillearen bitartez erriak dauzkan okerrak azaltzen dizkigu. Goazen ba ikustera nolakoa dan gizon au.

Ikaragarritzko jalea bezala agertzen zaigu. Asmo ta amets beti maya dauka. Asmodeok ondo ezagutzen du: «mantenizeco tripea da guztiz dilixentea» (amairu garren or.).

Ase arte jaten du: «birao gure estala ene savela» (amasei garren or.). Danak bere erara bizi dirala, uste du: «calchapotat emen leizque bocaduon bategaiti» (amasei garren or.).

Parregillearentzat, garrantzirik aundiena ondo jateak dauka: «nic neuquere dirua vaneu ederra neuque mosua» (bostgarren or.).

Aitzaki dan danak onak ditu mai ingurura biltzeko. Parrandara joateko ez da atzean gelditzen eta maian eseritzerakoan ez dabil eguneroko bazkariaren ondotik. Adierazten dizkiguten janariak ez dira nolanaikoak. Janaria ondo bustia maite du. Edari bezala, txakolina aipatzen digute: «zazpi ochava chacolin» (amaika garren or.). Garaiko lagunak, Parregillea ondo jana ta edana ikusten dute: «laster machi ardanza» (amabost garren or.).

Apariak batez ere maite ditu. Parranda egiteko garaia illunabar aldia aukeratzen du: «gavaren alaguerea» (amaika garren or.).

Jateko zaletasunaren itxura ezin du ezkutatu. Koipezko aztarnak

nunaitik sortzen zaizkio. Urdai puxkak, basoko zapel zabalaren antza ematen diote: «Charles tripazavalmendietaco ongura» (amabi garren or.). Nunbait sabel lodia du. Ikusten danez sabela geiegi zaintzen du.

Oartxo bat aurreratzea atsegin zait; gure Parregillea jale bezala agertzen digute ta ez emakume zale bezala. Parregillearen atsegiña, janaria ta edaria dira. Jaten txakur-aundik uzten ez dio ajolik. Beste aldetik, jauzi garaiko, emakumeentzat, dirua emateak miña egiten dio: «nesca zarroc danza eguin da mutiloc pagadu» (bost garren or.). Emakumeak ez diote buruauste aundirik sortzen.

Parrandan ibiltzeko berexi berexia dugu Parregillea. Jauzlari ona da: «Mutil belz Vergaraco danzari coplaria, mundu guztia coplazeco échayoc falta grazia» (amairu garren or.).

Nunbait apari galantak ez dute jota uzten; jauzika arintzen da. Ala dio: «emon daiztan saltovi» (sei garren or.).

Ez da arritzekoa gure Parregillea patrika ariñarekin ikustea. Parranda ugari ta lanaren eza, ez da gizonaren legea: «ene volsea arina beti» (bost garren or.).

Parranda egiteko kideak bear. Ez ditu beti eskubiko adiskideak arkitzen: «zorigaistoan ycusi neban araiesteco jentea» (amabost garren or.).

Ajologabea dugu gure parrandazalea. Anka zabalik lo egiten du. Betebearrak ez dira gizon onentzat eginak. Oyetik jeikitzen danean eizera dijoa. Alperraren bidea artzen du. Eiztaria gaizki ikusia dago Euskalerrian. Baserritar ziñezkoak ez du maite. Gizona eizera dijoala etxeko lanak emakumeak egin bear. Eztarria biguntzeko ardoa zatoan darama: «auxedoc auxe gure morroe alper cazadorea, cazara doean orduan beti aldamenean botea» (amairu garren or.).

Gure gizon onen jokabidea zer dan labur xamar esan diteke: janaria, parranda, eizea. Orrekin naikoa esana dago. Edozer gauz onerako galdua dagola, errex ikusten dugu: «infernuco leguea secula ausi beguea» (amairu garren or.). Orrela ba nola agertzen zaizkigun erriko semearen okerrak eta errextasunaren auleria.

Baiñan Parregillea, gaiñera, lotsagabe amorratua dugu. Ez ditu bazterrak bakean uzten. Arrotz izen batekin agertzen zaigu bein eta orrekin naikoa esaten digu: «ni nays Jauna machi Frifrai» (amairu garren or.). «Machi» orrek gizon erdi ustelaren kutsua du ta «Frifrai» berriz sorginkeriarekin lotua nolabait. Mingain gordiña dauka. Gogor jokutzen moldatzen da: «baixaquin nolacoadan ene ucavil parea» (amairu garren or.).

Naiz lotsagabe ta borrokalari itxura izan, berez arront ustela dugu. Bizkar ezurra berotzen diotenean ez daki burua altxatzen. Bein aitortzen du argalkeria: «auxedala Zeledon artu bait ez emon» (amai-

ru garren or.). Gaizki erabilia dagonian ez daki arpegia ematen. Orduan bakarrik deitzen du emaztea: «nun aiz ene Mariganon» (amairu garren or.). Ain errex aitortzen du bere auleria. Arpegia ematen ez dakin gizonetaz, zer oidoztu? Arront ustela dala.

Etxetik alde dabil beti; batzuetan parrandan, bestetan eizean. Zergatik ez asmatu, orrela ibiltzeko, arrazoi sakonen bat daukala?

Emaztearen arpegi illunak zerbait esan nai du. Emakumea zakarra da. Nor erredun? Zaila esaten. Senar-emaztearen jokabideak ikusirik ez da errex erantzun borobilla ematen. Gai oneri buruz, mutur batetik asita, zerbaiten argitasuna eman bearra dago. Gaitza onen aztarnari antza artzen diot. Senarra, beti etxetik itzuli dabil; iges. Nunbait etxean ez du berotasunik arkitzen. Emazte otza ta ao zabala dauka. Gure antzerkian senarrak oso xamur egiten dio itz emazteari. Ordaña ez da berdiña. Gaiñera «Marigavon» izen oneri, ez diogu usai onik artzen. Ez dugu emakume leguna ta apala, zain gorri dun baizik.

«Marigavon», neskame ankapetuaren antzarekin agertzen zaigu: «egongo enaiz zure ucaondoan» (amalau garren or.).

Senarra, erdi elbarria ikusita ez da errukitzen. Bare bare ta ezti ez titsu adierazten dio itza senarrak: «Marigavoncho enea, biozeco pusquea, orienteco perlea nunda zure legea, nun zure caridadea» (amalau garren or.). Ain gaizki ikusita ez dio ain legun erantzuten emazteak. Sututa ukabilla erakusten dio: «Bestelaco tratamenturiqu merezizen eztotu» (Amalau garren or.).

Gauza bat garbi ageri da; Marigavon'ek ez du senarra maite. Bakarrik errita egiten daki ta azkenean lurrean ondatua uzten du. Orrekin dana esana dago. Deabruak bezin gaizki erabili du emazteak gure Parregillea. Emakume au nolakoa dan jakiteko itz gutxi bear. Marigavonek ala dio: «Senar gaizac emasteona esperadu ezpegui» (Amabost garren or.).

Orain, jokabide guzti oiek ikusita, errex da jakitea, zergatik Parregillea dabillen beti etxetik alde. Emazteak ez du maite. Ezkontza ontan ere beste askotan bezala ez dakigu nor den oker guztien errudun.

Agiri dagona auxe da: idazleak Parregillea, nolana erabili dula ta azkenean emaztearen ankapean agertzen digula. Auxen nai zigun erakutsi: gizon onen auleriak ez daukala mugarik. Senarrak ez dauka emaztearen aurrean indarrik. Azkeneko iduri au ez da makala: senarra emaztearen ankapean. Orrexek bederen, ez al digu argitasunik ematen, bear bezala jakiteko, zergatik zebillen senarra beti etxetik alde, iges?

Idazleak, Parregillearen bitartez, erriko semearen alderdi txar guztiak agertzen dizkigu; etxetik alde beti parrandan, etxean berriz emaz-

tearen ankapean.

Idazlearen atsegina ta asmoak nolakoak diran jakiteko, Parregille ta Marigavon'en iduriak egokiak ditugu.

Idazleak, erriaren alderdi makalak ain garbi erakusten dizkigu; barrenean daramazkin korapilloa ta ezin egona, dan danak nolakoak diran azaltzen dizkigu. Pixko bat lasaitzeko esan bearrak gordin ateratzen zaizkio.

Beste aldetik Parregilleak, artzaien berri asko ematen dizkigu.

ISEKAREN JOKABIDEA

Parregilleari, zuri zuri, irri egiten atsegin zaio. Iseka delako jokabidea nolana erabiltzen du: «gure burloy ichita» (emezortzi garren or.).

Isekaren bitartez bizpairu gauza lortzen ditu: auzoko lagunak zapaldu, nai ditunak esan eta parra egin.

Besteak bereganatze arren bigun eta bare artzen ditu. Esku ondoan ditunean, solasean lasai asten da. Bakoitzaren esku ona irabazi dunean, orduan berriak jakiten asten da.

Alkarizketan, lagun urkoa ondo zirikatzen du. Orrelaxe ikusten ditu berriemallearen utsuneak baita alderdi motelak eta poliki irriparez arpegira nolabait botatzen dizkio oster.

Parregilleak irrika maite du. Oituraren ariari eltzen dio. Gizon alperra ortarako beti zai. Bere burua babesteko, orrela ibiltzea ondo datorkio. Illea artzen ari dala, beste danak zalantzan jartzen ditu. Lagun urkoaren alderdi makalak edo ustelak astintzen ditula, nolabait bere auleria izkututzen du. Gaiñera, orrelako gizonari, nor ausartzen zaio zernai esaten?

Besten alderdi motelak agertu ondotik, Parregilleari ditun jokabide ustelak etzaizkio ain lodiak iduritzen.

Gaiñera aitortu dezagun; parra egiten, gure Parregillea, txapel-dun da. Errian, irrika nola egiten dan jakiteko, aitorte ta iturri bikaiña dugu Parregillea.

Ez dezakegu aztu iseka ere gure errietako alderdi txar bat daukagula; batzuek gallentzeko, besteak ankaperatu bear.

ARTZAIEN ARGAZKIA

Bateri ta besteari parra egiten diola, Parregilleak, nolakoa dan artzaiaren nortasuna azaltzen digu.

Artzaiak, itzak beti ondo neurrituak esaten ditu. Epaille bat bezala mintzatzen da. Solasean dabillega, nortasuna ta egokitasuna agertzen du. Parregilleak, Beltran'i, «aleyaco examinadorea» deitzen dio. Itz oiek zerbaiten antza ematen diote artzaiari; urtearoak neurtzen ba litu bezala itz egiten du. Erritarrak, izketan sumatzen dula, pozik entzuten dio, baiña gero arritua gelditzen da: ez dago oitua orrelako nor-

tasunakIn itz egitera.

Parregilleak, beste aldetik, ba daki, artzaia naiz dotore agertu, ez dagola eskolatua. Kaiku bat dala esaten dio arpegira.

Artzaia danez gain agertzen zaigu: eguraldia asmatzen du, aizearen jokabidea nundik datorren esaten, izadiaren goraberetan etzaio ezer eskutatzen. Jabetasuna azaltzen zaio alderdi danetatik. Danen gaiñetik ateratzen du burua. Orregatik atsegin zaio illea artzea: «Ari-chavalcho gurea zezen toreadorea» (amazazpi garren or.).

Gizon egokiaren itxura du; soña luzea, begiratu garbia, liraña ta arin dabil. Parregillearekin ez dauzka alderdi berdintsu askorik; bat lodia, bestea egokia ta luzea. Gabriel'eri buruz izketan ari dala, Parregillearen Itzak naikoa esaten digute: «Canaberan cascabel, lindo mozo despachazeco de vino blanco un pichel» (Amazazpi gorren or.). Itxura egokia azaltzeko aurrena.

Jaiotetxiak asko esan nai du artzaiarentzat. Etxearekin oso alkar-tua ikusten dugu: «Beisteguico Gabriel» (Amazazpi garren or.).

Artzaia etzaigu agertzen jalea bezala, baiñan mendirakoan ardoak laguntzen dio. Edaria ba daki bear bezala neurtzen: «alboan falta da-guonian quartilloco onzia» (Amazazpi garren or.).

Dana dala, Parregilleak baten eta bestengatik esaten dizkigune-tik, artzaiaren argazki garbia atera dezakegu: epaillea, egokia, argia, zuzena, berezko jakintza duna.

Beste garrantzi aundiko xeetasuna eman nai dugu: Parregilleak artzaia arront bestelakoa ikusten du. Itz egiten diola, era bat ezber-dintzen da. Parregillea erriko semea dugu, bestea berriz artzaia. Begi ezberdiñarekin begiratzen du. Parregilleak ondo ezagutzen ditu ar-tzaiak, baiñan etzaigu mailla berdiñean jartzen, era bat bestelakoak bezala azaltzen dizkigu. Naiz artzaia ta erriko semea alkar ondoan bizi, orrexek erakusten digu, oso ezberdinak direla, lokarri baten bi alderdiak.

ARTZAIEN BURU BERRI EMATEA

Nolako nortasuna daukaten, artzaiak ere izketan ari direla, azal-tzen dute.

Aingerua ikusi ondotik, dauzkan begi ta otsa ederrak aipatzen di-tuzte. Begiak eta otsa artzaiarentzat garrantzi aundikoak dira. Begia erne dabil eta oso urrutira begiratzen oitua dago; mendi lepotik mendi lepora.

Otsa berriz, zorrotza ta garbia dauka. Nolako ziztuek aditzen di-tun jakiteko, beti belarria erne dabilki. Txoriak urrundik bereizten ditu; naikoa otsa entzutea. Gabaz edo lañopean, nolanaiko otsa entzu-ten dula, berealaxe ematen dio tankera. Eresia ta txistua atsegin zaiz-

kio. Lasai eqoten da txorien txistuak entzuten: «Duda бага вензизен диту campoetaco eperrac. Cantore asco arcuzen dira, Jerusalengo temploan musica dulceagoa dago angeru onen aoan» (Amasei garren or.). Esan dezakegu ludiko otsak artzaiaren lagunak dirala.

Lorenzok, Aingeruari txoriaren antza ematen dio: «choria leguez egoac dacarz dulcea bere aoa» «Amasei garren or.). Txoria, artzaia-
rentzat, ludiko gauzik ederrenetakoa da. Txoriak, lasai ta luze, asper-
tu gabe, begiratzen ditu. Artzain orrak bezala lagun egiten dio.

Alkarizketan, artzaiaren itz neurtuak ta buru argiak ere askotan ikusten dira. Eguraldiaren aldaketaren aztia dugu. Jakintsu batek be-
zala itz egiten du, garbi ta esandakoan neurria eramanaz: «naiz sa-
bio» (amazazpi garren or.).

Gizarteari, edozein garaietan, begiramen berexia agertzen dio. Itzak ondo bereixten ditu la legun egiten du: «Lizenzia iguzu» (ogei
garren or.), «Milla grazia» (ogeita bost garren or.). Egindako lanak
edo ekintzak ez ditu geiegi aipatzen edo goratzen: «Guchiagati par-
catu» (ogeita bi garren or.).

Artzaiak, aurtxo jaioberriarekin itz laztanak erabiltzen dituzte: «chiquirritico gurea» (ogeita bat garren or.).

Antzerkian, artzaiaren esku zabala garbi asko ikusten dugu: «es-
neguichibat decargu» (ogeita bi garren or.).

Artzaiak, izketan nornai irabazten du baiñan ez da gizon berri-
tsua. Ixil garai luzeak erabiltzen ba daki. Itz gutziekin asko esaten du.

Lagun urkoarentzat itz gordin gutxi ditu. Lotsagabekeriak etzaiz-
kio atsegin. Axaxaka ibiltzea, erriko semearen lana da.

Antzerki ontan artzaiaren argazkia guztiz egokia da.

ERRI BATZUEN EZAUGARRI TA NORTASUNA

Antzerkiari esker, bizpairu erri aundien alderdi naguslak ezagutzen ditugu. Erri oiei buruz, gizaseme soillak zer dion jakitea ona da. Pa-
rregilleak ematen digu berria.

Aingeruari, Oñati'ko gizasemearen antza ematen dio. Bi gai oiek alkarrekin neurtzeak asko esan nai du. Nunbait, garai ortan, Oñati'ko semea oso goi maillan ikusia zegoen: «Ori da buru motz Oñati'ko Peru Jaincoen mutila» (emezortzi garren or.). «Peru Jaincoen mutila» esaldi osoa, nunbait Oñatia'rekin lotua dago ta ez beste iñungo erriarekin. Gogoan euki; Oñati, Konde ta zaldunen erria dugu. Antxen ikusten dira jauregi, etxegarai, armarri ta aterpe sendoak. Oñati'ko semea erri berexi batean jaioa zala, danak zekiten. Etzan nunbait beste iñun arkitzen orrelako gizaseme zaldun sendorik. Goi maillako gizaldia dugu; lurra ontako nagusiak eta zeruko mugak ere ikuitzen dituztenak. «Peru Jaincoen mutila» aipatzea bakarrik, ez da gutxi esatea. Ortzen

dabil nunbait Jainkoaren inguruan.

Beste aldetik, Oñati'ko ezaugarri bat, ere, jakintza dugu: «casi buruan yleriq echoc, diranac ere bacarrac» (emezortzi garren or.). Oñati'ko ikastetxe nagusian bakarrik ikusten ziran, goi maillako irakasleak, geienak kaskazurik, egurastera zijoaztela. Jakintza aldetik oso gutxik gallendu dezake Oñati. Orregatik Aingeruaren bikaintasuna Oñati'ko gizasemearekin bakarrik neurtu dezake. Ortzen bakarrik arkitzen ditu batuak, zaldunaren egokitasuna ta irakaslearen jakintza.

Beste itza batzuek Durango'ko berriak ematen dizkigute. Berriz, Aingeruaren edertasuna nunbait Durango'n bakarrik ikusten da: «Mosu linduan arquizen dira begui eder gorri bi... badirudie yzan dirala Durangon errementari» (emezortzi garren or.). Durango'ko errementaria nunbait euki diteken onena izaki. Euskalerrriaren aurrean edertasuna Durango'n ageri.

ERRIKO OITURAK

Erriko oiturak batzuek ere aipatzen zaizkigu antzerkian. «Lauberes» delako abestia agertzen zaigu. Nunbait izen au, goizeko otoitz aurreko abestiari ematen zioten, batez ere Gabon'etan. «Lauberes» izena, «Laudes» latin izkuntz delakoakin lotua dago. Amalau garren orrialdean garbiasko esaten zaigu, artzaiak «Lauberes» abesten dijoaztela.

Beste berri interesgarria ere ikasten dugu: Arrasate'n mutillek neskei, dantza egiteko sarrera ordaintzen dietela: «nesca zarroc danza eguin da mutiloc pagadu. Ibini vide alcate xauna, ibini vidi leguea» (bost garren or.). Nolabait, Idazleak, gaia, mai gaiñean azaltzen du, garaiko itz zurrumorroa delako errian. Gaiñera gaian aipatuaz parra eragin arazi nai die danei.

Bizpairu xeetasunei esker, euskal jauzien ingurua nolakoa den, ikusten dugu. Aipatzen zaigunez, tuntunaren otsarekin jauziak neurten dituzte. Parregilleak garbirik esaten digu: «xovidi». Ereslariak makillarekin tuntuna jotzen du ta Parregillea jauzika asi diteke: «emon daiztan saltovi» (seis garren or.).

Eresiarekin lotua dagon euskal itz jator bat agertzen zaigu: «os begui dambolinac» (ogeigarren or.). «Ots» itz zarra, «soñu» erdal kutsuzko itza baiño jatorragoa dugu.

Euskal jauziei buruz egokia litzake zerbait aipatzea; enda ezberdiñetan egiten diran jauziak ez dute askotan alkarrekin zerikusirik. España'ko egoaldeko jauziak orpoaren gaiñean egiten dituzte, Iparameriketara berriz ankazolarekin, Euskalerrriara berriz ankaren biatz gaiñean.

Otsa ateratzeko aipatzen zaigun jostallua, txamboliña dugu; bea-

rrezko jauzjak egiteko egokia.

JAN-EDANEN BERRIAK

Berexitasun aundiarekin ematen zaigu apari baten berria. Okela aipatzen zaigu (amar libra oquela, XI garren or.), baita arraia (arrain zavalala salsatan, XI garren or.). Etzaigu okel ta arraiaren izen berexirik aurreratzen. Arraiak nolako laguntza daukan esaten zaigu: «salsataco zeruaq xaquin zeinbat ynsaur joziran» (amabi garren orrialdea). Atzetik, gartzain, sagar eta mizperak ondo elduak datoz. Ori dana txakoliñarekin bustitzen dute. Ogi zabalaa ere ba daukate egun ortan.

Parregillea, antzerkiko olan ikusten dugula, Gabonetako apari ondotik dator. Aipatutako janariak Gabonetako apariarenak dira. Igela negukoa da ta abendu garaikoa. Orduan apari ori izan leike garai artan Arrasate'n, Gabonetan egiten zutena, izatea. Aparia nolakoa dan esatean garbi ikusten dugu, etzaigula Belen'go Jesus'en garaiko aparía aipatzen. Ematen dizkigun xeetasunen bidez, idazleak gogoan ondo jasotako berrien aztarnak erakusten dizkigu.

ERRI MAILLAKO GIROA

Parregilleak, Jesus aurtxoari zerbait berexiaskoa eskeintzen dio: «asconaren azamarchoa ecarricodot menditi» (ogeita lau garren or.). Nunbait azkonarraren atzaparrari indar guztiz berexia aitortzen diote. Aur jaió berrien osasunarekin nolabait lotua dago; begi txarren gaitzak kentzen guztiz egokia izaki.

Erriaren giroa ezagutzeko, idazlearen xeetasun orrek argi bat ematen digu. Ba dirudi sorgin eta gizaseme gaitzoen begi txarrak zernai kalte egin dezaieketela aur jaió berriari.

Gaitz oiek baztartzeko azkonarrak indar izkutua dauka noski.

Ori dan dana Arrasate'n garai artan sinisten dute.

Noraño dagon zabaldua Euskalerrian oitura au egokia litzake ikustea.

Beste berri polit bat aipatzen zaigu: Aseginzorok Maria'ri txorixua dakarkio. Nunbait garai ortan aurdun emakumeari eramaten zaion oparia da. Gaur oraindik erri ta basetxe askotako oitura dugu: auzokoak ama agurtzera urbiltzen dira ta aur berria ikustera, Aitzaki orrekin opari bat eramaten diete. Arrasate'n ikusten danez, txorixua dakarkiete. Txorixua noiztik bein mai gaiñera azaltzen zan janaria izaki.

Beste xeetasun batek eskribauaren lana egiteko gaia aipatzen digu: idazteko. txekorraren larrua nola moldatzen zan. Lendabizi, larrua uran beratzen eukitzen zuten, gero biguntzeko ta leuntasun bizia emateko, su ondoan ipintzen zuten. Txekor larru ortan garrantzi aundiko erabakiak idazten zituen eskribauak.

ETXEKO-JAUNAREN NORTASUNA

San Jose'ren bidez, idazleak Euskalerriko Etxeko-jaunaren nortasunaren alderdi berexiak agertzen dizkigu.

Gizon zuzena dugu, danez gaiñ, gure San Jose; itzak bear bezala erabiltzen ditu, ondo neurtuak. Sinisdun ziñezkoa daukagu. Jainkoa danez gaiñ aipatzen du. Ekaitzetan gizon apala da (ikus IV eta VI garren orrialdeak).

Izena garbirik gordetzen saiatzen da. Emazte garbia na! du (lau garren or.). Emaztea aurdun dagola jakitean, oso minduta ta goibel dugu: «izorra sentitzen dot neure espossea» (lau garren or.).

Gizartearen aurrean, sendiaren buru bezala agertzen da. Eginkizunak ondo betetzen ditu: «Zessari tributua anpagazera» (sei garren or.).

Sendiaren ona billa dabil: «Pensamentuan nator... izango ete dogun Velenen ostatu» (zazpi garren or.).

Ate joka ostatuan, San Jose ari zaigu. Bearrezko ordaña eskeintzen du: «zeuroen travajua pagaduco xazu» (zortzi garren or.). Aterpe baten berriak berriz jasotzen ditu: «arren eracusczu nun yrago gava» (bederatzi garren or.). Besten aurrean, sendiaren izenean arpegia ematen daki.

Emaztearekin maitagarria dugu: «zure travajua da ene penea» (sei garren or.).

Gizon biotz zabala dugu, gizaldia ziñez maite duna: «guretacozat jaio da Jesus, ascoren deseadua» (ogeita lau garren or.).

San Jose'n alderdi on asko ikusten ditugu. Etxeko-jaun ziñezko bat bezala agertzen digute. Barrutia'ri esker, San Jose'ri buruz berri on asko dakizkigu; Itun Berriak ematen dizkigunak baiño askozez geiago. Itun Berri'ko San Jose itzalpean datza, Barrutia'rena berriz ageri agirian.

Zergatik aipatzen dugu San Jose etxeko-jaun bezala? Gure ustez beste izenik obeto etzaiolako egokitzen. Barrutiak ez du agintari indartsu bat bezala azaltzen, gutxiago oraindik zalduna bezala. Ez dago itsu itsuan sendiaren garai zabalari begira. Erriko etxeko-jaun bat bezala erabiltzen du.

Barrutiak, buruan dauzkan etxeko-jaun jatorren erabakiak eta jokabideak San Jose'ri eransten dizkio. Nortasun ontan iru alderdi onak arkitzen ditugu: sinismena-kemena ta itz ziñezkoa.

Beste aldetik, nolakoa dugun etxeko-jauna Euskalerriko zabaldian, ona litzake jakitea. Bide ontatik lan asko dago oraindik egiteko.

San Jose'ren egokitasuna beste xeetasun batek aitortzen du: gizon atsegiña da. Odolaren garratzasuna ondo neurtzen ba daki.

Gizon onen tankera nun arkitzen dugu Euskalerrian? Gipuzkoako

Arrasate-Oñati inguru ortan. Odolaren sua, ain ondo beste Euskalerriko bazterretan neurritzen al dute? Ori ikusi bearra dago.

ETXEKO-ANDREAREN NORTASUNA

Maria'ren bidez, idazleak etxeko-andrearen alderdi bikaiñak agertzen dizkigu.

Maria, batez ere, Jainkoa'ri lotua ikusten dugu. Neurri gabeko begiramena dauka zeruko Jainkoa'rekin: «dicha guztia zeruti» (ogeita iru garren or.). Ba daki Jainkoa'ren laguntza berexia jasotzen dula ta gaiñera Bere eskutan dagola.

Gero, Maria, senarrari, era bat bildua ikusten dugu. Maite du benetan eta ezti ta laztantsu itz egiten dio. Erritarren begi aurean, beti senarraren babesean agertzen da: «pocic etorrigo naiz zure accean» (sei garren or.). Itzak ezin ditu obeto berexi: «esposso maytea» (zazpi garren or.). Biotz zabala ta xamura du senarrarekin. Ba daki gaiak aipatzen, baita egin bear diranak adierazten. Senar emaztearen artean alkarizketa errax sortzen zaie. Ala dio Mariak: «Besteric ezin bada gazen bada ara...» (bederatzi garren or.).

Amak eskua batez ere aurtxoari zabaltzen dio neurririk gabe. Zaindu ta gurtu egiten du garai berdiñean: «eji ene laztanchoa... gure xavea» (ogeit garren or.).

Mariak, oso zoriontsu arkitzen du bere burua, San Jose'n jatorriko etxeari, semea eman diolako. Gizaldi osoaren alde begiratzen du gaiñera.

Emakumearen garbitasuna danez gaiñ aipatzen du; «Umildeay eztaqui ezer ucazen» (ogeita bat garren or.).

Baiñan etxe barrenean Mariak agintzen du, baita arrotzei ere atea irikitzen die: «pastoreac, ea varrura, sar zaytez» (ogeita bat garren or.).

Astirik galdu gabe bizi da. Bear dan tokian arkitzen dugu. Itzak neurritzen ditu ta bear danean argitasuna ematen ba daki: «eperic ezta Josef cumplizen estaniq» (seigarren or.).

Emakume eskertsua dugu ta ordañak ematen dakina: «pagaduco deussu» (ogeita bi garren or.). Euskalerriko etxeko-andreak ondo dakite zer dan ordaña. Artzen dana, jakin bear atzera ematen. Artu-eman bi itz oiek, alkarrekin joan bear dute beti. Berexitasun aundiarekin jakin bear da artzen eta mailla berdiñean ematen.

Maria'ren biotza, guztiz zabala da. Ez dio geiegi bere buruari begiratzen edo biotza ez dauka bakarrik bere aur orrentzat: «orra nun ofrezizen deusut munduco biotz guztiaq» (ogeita lau garren or.).

Maria, etxeko-andre neurri gabekoa bezala agertzen zaigu. Barrotiak, Maria nolakoa dan idazten dula, alakoa ikusten dula etxeko-andre jatorra, adierazten digu. Idazleak ez du Maria zalduna bezala

agertzen, gutxiago oraindik emakume indartsu bat bezala.

Ba dakigu Mariak ez daukala neurrik, baiñan emen, Euskalerriko etxeko-andreak dauzkan alderdi egokienekin apainduta agertzen zaigu.

AGINTARITZAREN EZAUGARRIA

Zesar'en aldizkariak, erriaren asmoa nolakoa dan agintaritzari buruz erakusten digu. Agintarien lana txakur-aundik biltzea da: «guizon bacoizac pagadu begui tributua ta censoa» (bost garren or.).

Diruak edo txakur-aundiak daukan indarra esaten zaigu: «chacurrac eurac eguiten dave danza diruagaiti» (bost garren or.).

Diruak ematen dula indarra ta agintzaritza, nunbait errex da ikusten. Txakur-aundirik gabe ez dago indarririk. Dirua ta agintzaritza ondo lotuak daude alkarrekin.

ERRI TXAR BATEN EZAUGARRI

Tomas ostatularia ta morroi sugurmotza alkarrekin dijoaz.

Ostatularia nortasunik gabeko gizona dugu. Morroiari zerbait agintzeko, karrexika ibilli bear du. Egokitzen zaion morroia eskuratu du. Morroia sugurmotza da ta orrekin naikoa esana dago. Ziñezko ostatulariak ezin dezake morroi sugurmotza aukeratu. Mutil sugurmotza ez dago gauz aundietako egiña, ezta ere lanerako.

Tomas ostatulari ta morroi sugurmotzarekin, idazleak garbi garbi esan nai digu, SENDI Santuarentzat etzegola tokirik Belen'en. Nagusiak ez daki agintzen eta morroiak ez dauka axolarik. Belen erriak, nunbait, egokitzen zitzaion ostatua zeukan.

Tomas ostatulariak agintzeko eskurik ez daukala garbi dago. Zerbait esateko otsa gogor eragin bearra. Morroiari zerbait egin arazteko, zemai dabilki: «mutil naguia... maquillacata agaca... zancazanac abaqui... su eman» (zazpi garren or.). Baiñan nagusiaren begi txarra beste zerbait agertzen da: lanerako, mutil sugurmotza artu dula.

Idazleak, morroiari eman dion izenak asko esan nai du, batez ere Euskalerrian. Sugur luzeak ikusten ditugu Euskalerrian. Sugur luzeak ematen dio egokitasuna arpegiaren itxurari. Sugur-luzeen artean, sugur-motza gaizki ikusia dago. Sugurmotzak, zuurtasunaren eza adierazten du. Sugur luzeak berriz zernaia usaia artzeko beti zai.

Morroi sugurmotzak ez dauka alderdi onik; alperra da. Lotsagabe amorratua dugu: «olloa nola ysquin toquian guizenzen jacu losaque-rian» (zortzi garren or.).

Ostaturako gaizki aukeratu dute. Nagusiaren itza ez du betetzen. Gizasemei sarrera ematen ez daki. Ate joka datoztenei, txakurrak bezala artzen ditu: «zuenzat ostaturiq eztago emen zuaz emeti» (bederetzi garren or.). Morroiari ematen zaizkion izenak ez dira oso ezti-

tsuak: «chatto mutil losavague desbergonzadu perroa» (bost garren or.).

Itz gordin oietako lenengoa, «chatto», sugurmotza da ta azkena txakurra. Nunbai sugurmotzari txakurraren tankera ematen dio. Sugurmotza dalako, txakurrarekin neurritzen du nagusiak. Aberen mailara jeixten du. Nunbait ez da bestekin batean bizitzeko egiña.

Berriz aipatu bear; sugurmotza, sugur luzeen artean ez dala akatsa, obena baizik.

Morroi sugurmotz duen ostatuak ez dio aurrerabide aundirik ematen erri bateri.

San Jose ta Mariak etzeukaten aukera aundirik Belen'en. Atsedena artzeko, erri inguruan arpea arkitu bear.

Gaur danontzat Belen, Salbatzaillearen jaioterria dugu, baiñan San Jose ta Maria'ren garaian, erri kaxkar bat zan. Jainkoaren indarra osoa bear, erri orren izena aldatzeko. Gizonak ezin duna, Jainkoak aldatu dezake. Salbatzallearen etorria etzitekean gertatu toki fxarra-goan.

EZKUTATUKO INDARREN EZAGUERA

Aingeruak eta deabruak ain lasai antzerkian agertzen direla, emezortzi garren gizaldiko erriko giroa azaltzen digute: orduko gizadiak, ezkutatuko indarrarekin arreman errexak zituzten.

Aingerua, Jainko ta gizon bitarteko bezala dabil: «Ni naiz zeru altuco mandataria» (lenengo or.).

Jainko aldeko giroa nolakoa dan erakusten du: «Doa guztia dator zeruti» (bigarren or.).

Batez ere Jainkoaren asmoak nolakoak diran agertzen ditu.

Baiñan Aingeru onarekin batean, beste batzuek txarrak ditugu. Antzerkiak dionez, deabruak gizonarekin batean bizi dira. Ba dituzte alkarrekin arreman lotuak. Parregillea, deabruekin batean ikusten dugu. Nunbait gizonak madarikatu batzuek bezala ibiltzeko deabruen bearra izaki. Zigorra, gorrotoa, borroka ta zalapartaren giroa astintzen dabil: «pena garras ravia, tormentu andiac abrasazen deust errai guztiac» (amairu garren or.).

Batez ere indarkeria dariote; gizadia beti zanpatzeko asmotan. Lotsagabekerian dabiltzala, erderaz egiten dute itza. Erdara nunbait agintaritzza illunarekin lotua ikusten zuen emezortzi garren gizaldiko euskaldunak. Agintaritzza ta zigorrarekin erdal izkuntza, bat egiñik dabil.

ESANA BOROBILTZEN

Oraiñ arte aztertutako gaien esanaia antzerkian agertzen da. Bizpauru aldiz idazkia irakurtzen dugula, egillearen asmoak nola dijoazten korapillotzen ikusten ditugu. Itzen atzean zer dagon jakiteko, askotan

irakurri bear idazlana. Idazleak gauzak esan egiten ditu ta itz oien esanaia ta neurria artu bearra dago.

Gure asmoak obeto borobiltzeko, gauzak garbi agertu bear ditugu.

Gure ustez idazleak erriko gizon makalaren argazkia, alderdi illunez betea uzten digu. Erriak sortutako gizona auxe dugu: jalea, parrandaria, eiztaria ta emakume erdi ero batek ankapean daukana.

Beste aldetik artzaia goratzen du: nortasun berexia ta barrengo jatortasuna errex nabarmentzen zaizkio.

Izan leike idazleak ustekabeen, orrela aurtzaro garaiko oroitzapenak sortzea. Txiki zalarik Aramaion ikusi zituen artzaiak. Gero gizon egin dala, Arrasate'n ezagutu du erriko giroa. Antzerkian bata bestea-rekin neurtzen ditu.

Artzaiak banaka aztertzen ditu, nortasun aberatsen alderdiak ikusten ditulako. Erriaren xeetasunak berriz, gizon baten goraberetan, batez ere, agertzen ditu.

Belen'go itxura illuna ere, ostatuko giroaren bitartez azaltzen digu. Morroi sugurmotza, giro orren ezaugarri dugu. Nunbait sugurmotza izatea ez da zeruko saria: gizona txakurraren maillan baztertzea baizik.

Euskal jauzien giroari buruz, itz gutxikin asko esaten zaigu. Jauziak eta tuntuna lotuak ikusten ditugu.

Gabonetako aparria nolakoa dan ere nolabait aipatzen zaigu. Okela izenarekin etzaigu argitasun aundirik ematen. Arraia berriz «salsatan» dagola aipatzen zaigu. Arrai zabala esaten zaigula berealaxe bakalloa edo besugoaren oroitzapena datorkigu burura.

Bi oituren berri ematen zaizkigu; bat aurdun emakumearen oparria, bestea azkonarraren indar izkutua.

San Jose ta Maria'ren bitartez etxeko-jaun etxeko-andre jatorraren iduriak eskuratzen dizkigute. Iduria, goi maillakoa ta ezin ohea da, baiñan bear bezalako etxeko-jaun ta etxeko-andreari egokitzen zaiona, naiz artzai, baserritar, arrantzale edo erritar izan.

Aingerua, gizonak zeruarekin duen lokarria da. Aingeru txarrak berriz, indar ustel guztien arpegia erakusten digute.

Erdarazko itz batzuek deabruaren aoan, erriarentzat, izkuntza au ta indarkeria alkarrekin ondo datoztela, esan nai digute.

Antzerkiari usai ori dana artzen diogula, esan dezakegu Euskalerritari buruz gauz asko esaten dizkigula idazleak. Garai berexi bateko argia ematen digu. Barrutia'ri esker, garai artako euskal gizonaren neurriak jakiten ditugu.

ELERTI TA IZKUNTZAREN EGOKITASUNA

Naita naiez, antzerkiak elerti aldetik daukan egokitasuna ikusi bearra dugu.

ANTZERKIAREN ERA

Barrutia'ren idazlana antzerki motza da, lerro neurrituekin egiña. Danetara egillearen eskuzko idazkian, 520 lerro daude. Aita Onalndiak 485 lerro aipatzen ditu; gure ustez Azkue'ren argitaldi elbarrian zembatu ditulako.

Antzerkiaren mamia, Gabonetako agerketa dugu. Sendi Santua Jainkoaren esana jarraitu naian dakusgu.

Batzuetan borrokaren kutsua ematen dio egilleak. Lendabizi borrokaren giroa sortzen da Sendi Santuan: Maria aurdun gelditzen danean, San Jose amorratua dabil. Bigarren borroka azaltzen zaigu deabruarekin; aur jaio berriaren eriotza nai du.

Irugarren borroka, nolabait, ortxen ikusten dugu ludiko Indarrak eragospenak Sendi Santuari azaltzen dizkietenean.

Borroka ta amorroa ere deabruen miñak erakusten digu, baita Parregillearen naigabeak.

Antzerkiaren borroka antzeko alderdia ta kutsua, sutsua dugu ta mingarria.

Beste aldetik, gure antzerki onek, zati batzuetan gazi-geza kutsua ere ba du, dan dana parra eragiñarazteko erabilia. Pipermin gaietan, Parregillea deitzen dugun antzerkilaria daukagu txapeldun. Batzuei ta beste illea artzen eta zirikatzen lasai dabil.

Eliz, borroka ta pipar kutsuzko alderdi oiek danak lerro neurrituetan agertzen ditu idazleak. Lerroetako azkeneko itzen otsa ere neurritzen du.

Alkarizketan banatuak ba ditugu zazpi abesti, bost ordez (1, 2, 3, 4, 5 garren orr.) eta bi euskeraz (9,25 garren or.).

IDAZLEAREN ESKUA

Ezin dugu ukatu idazle bakoitzak esku berexia dula idazteko. Antzerki ontan nolakoa dan gure idazlearen eskua jakin nai dugu.

Begiratu bat naikoa jakiteko, alkarizketen lerroen neurriak ezberdinak dirala. Nunbait idazlea ez dabil neurri berdiñaren billa. Barrutia'rentzat, aurrenekoa ez da neurria, asmoak garbi azaltzea baizik. Neurria erabiltzen du, nolabait lerroen itxura osatzeko.

Lerroen neurria ere nai duen bezala zuzentzen du. Neurri berdintuenak erakusten digutenak erdarazko bost abestiak dira: lau lerroko abestiak ditugu. Lerro geienak zortzi otseko itzak daramazkite, Iru-garrena ezik.

Lerro geienak lauka bilduak daude. Beste neurri askotakoak ere arkitzen ditugu.

Euskerazko lerrotan itzen otsak zenbatzen ditugula, neurri ezberdinekoak azaltzen zaizkigu; geienak 7 eta 8 otsa dituzte, besteak berriz 12, 15, 17 otsakoak. Neurri txikiagoetan 7 otsako dugu ugariena, neurri aundietan berriz 17 otsakoa.

Lerroen neurketan bizpairu antzerkilarien alkarizketak atxikitzen ditu.

Gaiñera, antzerkilari batzuen itzaldi luzeak, lerro ezberdiñeko neurrikin osatuak daude. Itzaldirik luzena, Luzifer'ek egiñak ba ditu neurri ezberdin asko.

Batzuetan, elkarrizketako indarra erakusteko, neurria ebakitzen du; orrela gizadiko barrungo otsa, agiri, azaltzen da.

Orrialde batzuetan neurketa sortzeko lerro luzeak beste motzekin biltzen ditu (15, 16, 20, 21 orrialdeak). Noizbeinka, lerroetako itzak 12 otsazkoak dira, bestetan amazapikoak.

Lerroak eta neurriak antzerkilariaren esanera eramanak dira. Dana dala beti lerroak nolabait neurtzen saiatzen da.

Lerroak esanera egokitzeko, oso ezberdiñak bear dute izan; esana beti txapeldun ta neurria morroi.

Itzen otsaren aldetik, orain lerroak ikusten ditugu askotan bika neurrituak.

Erdarazko abestietan lenengoa ta laugarrena, bi ta irugarrenak ots berdinak dituzte.

Beste orrialdetan (1 eta 2 garrena), lerroak lauka banatuak daude eta otsaren neurria auxe da: 1-2-4 berdiña, 3 bestelakoa.

Bestetan berriz, lauko lerroak ots berdiñekin neurrituak dauzkagu edo iruka (amairu garren or.).

Beste orrialdetan (22 eta 23 garrenak) otsaren neurria auxe da: 1 - 2 - 4.

Gauza bat argi dago: idazleak otsaren neurria askotan aldatzen dula. Lerroko azken ots ori geienetan izki leguna dugu, oso gutxitan gogorra. Orrialde batzuetan berriz azken otsa bi izki legunak egiten dute. Agertzen zaizkigun itz gogorrak auxek ditugu: c, n, q.

ASMOAREN ERA

Batez ere alkarizketaren giroa sortzen du. Gertakizunak nolakoak diran esaten ditu. Antzerkilarien jokabideak nagusi. Asmoen ardatza ekintza da. Ekintzaren ari luzea erakusten digu.

Utsean ez du ezertxore uzten. Asmoak garbi dijoaz lerrotzen ekintzaren aria agertzeko.

Iduri soil asko erabiltzen ditu, asmoak apaintzeko. Gaiñera Itzak

toki jakin batzuetan ipintzen ditu. Orrela entzuleak errex jarraitzen du esanaia.

Idurietan, bizidunak ta gizasemeak aipatzen ditu, baita toki ezagun batzuek.

Txakurra askotan entzuten dugu: «chacurrac eurac egiten dabe danza diruagaiti» (bost garren or.). Olloa ere bein oso ondo erabillia dabilki: «olloa nola ysquin toquian guizenzen jacu losaquerian» (bost garren or.). Eperra ere sortzen du: «duda бага venzizen ditu campoetaco eperrac» (bost garren or.).

Antzerkilari batzuek margo biziz inguratuak azaltzen ditu. Orrela, morroi sugurmotza txakurrarekin neurtzen du: «chato mutil losavague desbergonzadu perroa» (zortzi garren or.). Parregillea, basoko zapelzabalaren antzera erakusten digu: «Charles tripazaval mendietaco ongura» (amabi garren or.). Beste batean berriz, jauzilari trebearen antzera: «au doc mutil baltz Vergaraco danzari coplari» (amairu garren or.).

Oso arin ateratzen zaio idazkian asmoa: «Beisteguico Gabriel, canaveran cascavel, lindo mozo despachazeco de vino blanco un pichel» (amazazpi garren or.).

Bestetan asmoen esanaia eguneroko solasetatik artua dago: «gure Mondragoen pagazen dugu dirua danzeagati» (bost garren or.).

Piparra sartzen du entzuleak zirikatzeke: «nesca zarroc danza eguin da mutiloc pagadu» (bost garren or.).

Beste batean eskribauaren langintzaren giroa erakusten digu, artzaientzat oso arrotza dana: «Arpeguico narru ederraq pergaminoac dirudi, pergaminoa bustita guero eracusia suari» (emezortzi garren or.).

Ekintzaren gaia itz laburrez eta tximista balitz bezala erabiltzen du: «zerreveta xo vidi, emon daiztan salto vi» (sei garren or.).

Asmoaren indarra itz ezberdiñen bidez agertzen du. Batzuetan ezerren antzerik gabeko itzak alkarrekin neurtzen ditu: aingeru-gizona, jakintsua ta gizagaixoa. Ara eredu batzuek: «Anguerua doc eztoc guizona» (amasei garren or.), «musica» dulceagoa dago angueru onen aoan» (amasei garren or.), «penitenzia eguite ori eztoc ynsaur salsa» (amazazpi garren or.).

Esaldia, batzutan, argiñak arria bezala, ebakitzen du, zorrotz: «orrelaco orazinoac zure aoan ugari» (zortzi garren or.), «infernuco leguea secula ausi beguea» (amairu garren or.), «senar gaizac emazte ona esperatu epegui» (amabost garren or.).

Alkarizketan egia dago elburu bezala aukeratua, orregatik esaldiak ebakitzen ditu arria ba'litz bezala.

IZKUNTZAREN AZTERKETA

Geienak arritzen digunak auxe da: itz berdiñak era askotara idazten ditula. Itzen zerrenda begiratzea naikoa ori ikusteko.

Beste oar nagusia berealaxe nabarmentzen da: itz askok erdara edo latin kutsua daukate. Itz oietatik asko euskaraz ba ditugu toki askotan erabiltzen dituztenak, baiñan gure idazleak ez ditu noski eza-gunak.

Gutxi gorabera 569 itz daude danetara Barrutia'ren antzerkian. Oietik 212 erdara kutsua dute; eundik ogeita amazapi. C-D-E-P-T izkiekin asten diren itzak, geienak erdara dute oñarri bezala. Euskarazko kutsua daukatenak geienak B-E-G-I-L-N-O-Z izkiekin asten dira.

Aditza berriz, bi eratara egiten du, laguntzaillearen bidez eta laguntzallerik gabe. Ara emen laguntzallerik gabeko aditzaren ereduak: ekarri (dacar), ikusi (dacussu), egon (dago), etorri (dator, nator, zatoz), ibilli (dabil), joan (doana), jakin (ba-nequi) eta abar. Oiek danak laguntzallearekin ere erabiltzen ditu.

Nor-Nori-Nork jokabidearen alderdiak azaltzen zaizkigu era askotara idatziak. Batez ere aginte era asko ikusten dugu: antzerkiko giroan beti oso erabillia da.

Izkien aukera, esan bezala, zalantzan ikusten dugu, oraindik ondo erabaki gabea.

H izkia bein bakarrik azaltzen da: «Herodes Herregue» (amar garren or.). Beste bi aldiz ikusten dugu «Erregue», H'rik gabe. H izkia-kin berriz bakarrik Herodes Erregeari lotua dagonian. Aldaketa oiek, ikusten ez dan idazlearen buru-muiñetako maillan, zerbait esan nai dute. Eroses erregearen izena erderaz H batekin jantzia datorkigu ta Errege izena eransten dionean H izkiakin laguntza egiteko ta indarraren ezaugarri bezala, ipintzen dio. Idazlearen muiñaren maillan, H izkia, indarkeri ta gorrotoaren ezaugarri dugu.

Esanaldiari indarra emateko, bizpairu aldiz erabiltzen du itz berdiña. Orrela asmoa garbi ta argi agertzen zaigu. Gaiñera itz berdiñak lerro berean bizpairu aldiz erabilliak ditugula egokitasuna ematen diote izkuntzari:

- «Nundi niq nundi» (bigarren or.).
- «imposibleriq... imposibleac» (iru garren or.).
- «gura dozuna eguin eguizu» (iru garren or.).
- «Ibini vidi... ibini vidi» (bost garren or.).
- «Alegravitez, alegravidi zerua» (bederatzi garren or.).
- «Auxe doc auxe» (amairu garren or.).
- «Marigavon nun aiz ene marigavon» (amalau garren or.).
- «Guidalbi guidalgozo» (emezortzi garren or.).
- «Guzti guztiac» (ogeita iru garren or.).

«Gaur dalagavon gava, gaur dała gavon» (ogeita bost gorren or.).

«IC» izkiekin sortutako itzak asko erabiltzen ditu ta euskarari bizkortasuna ematen diote:

«queriza eguinic» (bost garren or.).

«Flema overic» (zortzi garren or.).

«Ostaturiq... beneric... loric» (amaika garren or.).

«guizon ederriq..., aseric... esanagaitic» (amasei garren or.).

Euskerak ba dauka joskera berexia; itz nagusiaren adarrak aurretik eta emborra azkena. Euskarazko jokabide jator ori, ondo darabilki idazleak:

«Pensamentuan nator» (sei garren or.).

«gavaren aleguerea» (amaika garren or.).

«infernuko leguea» (amairu garren or.).

«biozeco pusquea» (amalau garren or.).

«campoetaco eperrac» (amasei garren or.).

«Zeruetaco xaunaren anguerua» (emezortzi garren or.).

Esaldi zarren kutsua ematen die elkarizketako zati askori. Esaldi laburrak dira. Buruak oso errex jasotzen ditu ta ia beti gizagogoarekin zerikusia daukate. Idazteko gisa au garai ortan bertan eta batez ere zerbait lentxoago oso erabillia zan Espaiñiko elertian. Ara emen eredu batzuek. Bat erderaz dago:

«chacurrac eurac eguiten dave danza diruagaiti» (bost)garren or.).

«Xaungoicoa dan lecuan ezer esta falta» (amabost garren or.).

«senar gaizac emasteona esperadu ezpegui» (amabost garren or.).

«errar no es posible con tan cierta guía» (amabost garren or.).

«infernuco legue secula ausi beguea» (amairu garren or.).

«penitentzia eguiteori eztoc ynsaur salsea» (amazazpi garren or.).

Ba ditugu itz eta joskera batzuek jatorriz oso euskaldunak eta gaur naiko galduak daudenak edo erdi mordolloz esaten ditugunak.

Itz bat daukagu, aipatu gabe ezin duguna utzi: «izorra sentizen dot neure espossea» (lau garren or.). Itz au, era ortara ez dago oso erabillia gaur.

Euskal joskera zarra, benetako bitxia, ezin duguna aztu auxe da: «Uriaz ateti» (bederatzi garren or.). «Erritik alde» esaeran antzekoa da. Era ontan esaldi mordolloa sartu zaigu gaur: «erritik kampo».

Beste esaldia jaso bearra «orpoac eracustea» (amabi garren or.) dugu. Orpoa itzarekin esaldi asko osatzen zituzten aspaldiko garai zarretan.

Euskal sena ta kutsua, beste joskera jator batean ikusten dugu: «gaurco gavaz» (amabi garren or.). Naiz bi itz izan, joskera aberatsa da.

Ara beste bi esaldi jatorrak, gogoan jasotzeko egokiak: «errai guztiac» eta «auzia emango deusat». Eguneroko alkarizketan, itz oiek

erabili ezkeru, gure izkuntza garbiago agertuko litzake.

Beste esaera bat aukeratu dugu: «Zemai Marigavoni». Ez da gaur asko entzuten. Emertzotzi garren gizaldiak nunbait ezaguna du.

Itz batzuek ere merezi dute aipatzea: «alboan» (amazazpi garren or.), «viloxic» (ogei garren or.), «lucalñquea» (ogeita bat garren or.). Gaur lukainkaren ordeaz «txorixua» entzuten da.

Gutziz berexiak eresiari buruz esaten zaizkigun itzak: «osbegui dambolina» (ogeita bost garren or.). «Osbegui» itz oneri aintzina garaiko kutsua ematen diogu. Ots itzarekin osatutako esaldiak ba dute berexitasuna. Eredu jator batek zerbait esaten digu: «biotz» izena, bi itzen bitartez osatua dago «bi-ots». Entzutetik izkuntzan bildua dagon ezaugarria noski. Bide ori zan aurreneko garaietan zerabilkitena, izkuntza osatzeko.

Aditz jator bat, joskerari ondo datorkiona auxe dugu: «Biurrezazuz orain gueugana Jesussa zeure beguiac».

Esaldi, itz eta izen guzti oiek ditugu Barrutia'ren antzerkiko bitxi berexiak, euskara bear bezala jazten dutenak. Gaurko izkuntza jasotzeko egokiak dira.

Elizako izkuntzak nolako itzak dauzkan sartuak erriko esaldietan, antzerkian ageri. «Salve» delako otoitzaren kutsu aundia daukate esaldi batzuek:

«Adanen ume desterratuac» (ogei garren or.).

«miseriazco balle onetan» (ogeita lau garren or.).

Biurrezazuz orain gueugana Jesussa zeure beguiac» (24 g.o.).

Itz egiteko muiñetako ariak nola dabiliztan lanean, ortxen ikusten dugu. Entzunak gorde ta bearrezko garaian, gordetako aztarnak berriz erabiltzen dira. Ori dan dana ustekabian ateratzen da.

Idazki ontan, nagusitza aundiarekin dabilkin gaia, esaldiaren galdegaia da. Bearrezko itza ondo lotzen du aditzarekin.

Eredu batzuen bitartez ikusten dugu joskeraren neurria, nola dagon lotua:

Aditza, galdegaian dago izkutua; «Ara norbaita atean» (8 g. or.).

Aditza azkena ta kezka agertzen duen itza aurretik; «ordu onetan nor ete davez» (zortzi garren or.).

Ezezko itza aditzaren aurretik; «zuentzat ostaturiq eztago emen» (bederatzi garren or.).

Aditza laguntzallearekin azkena: «salsataco, zeruaq xaquin zeinbat ynsaur jo ziran» (amabi garren or.).

Galdegaia bi aldiz aipatua ta aditza bakarrik; «Nunda zure leguea, nun zure caridadea» (amalau garren or.).

Galdegaia aurrena, ondolik aditza laguntzallearekin eta gero beste berri danak: «zorionian juntadu gara guztioec lecu batera» (amasei ga-

rrren or.).

Galdegaiia aurretik, gero aditza laguntzaillearekin ta azkena eragillea iru itza lagunekin; «Mosu linduan arquizen dira begui eder gorri bi» (emezortzi garren or.).

Benetan aintziñako kutsua duan esaldia auxe da: «Ugazavari artuta nator ysilic lucainquea» (ogeita bat garren or.).

Esaldi gusti oietan galdegaiak beti bear duen tokia aukeratzen du; aditzaren aurrean. Galdegaiaren aurretik edo aditzaren atzetik dñjoaz beste berri asko.

IZKUNTZAREN EDERTASUNA

Eresian egokitasunari begiratzuz, San Jose'ren lerroak, lau garren orrialdian, aipatu bearrak ditugu: kezka bizia adiarazten zaigu. Itzak, lerroen neurria ta azkeneko otsak atseginak dira.

S. Jose ta Maria'ren alkarizketa bizkorra, sei ta zazpi garren orrialdian, oso egokia dugu.

Luzifer'en itzaldi luzea, bederatzi ta amaika garren orrialdetan, garratza da, baiñan indarra du. Aserrearen giroa ta miña bear bezala erabiliak dira.

Oso alaia ta ots indartsuz apaindua, bederatzi garren orrialdoko abestia dugu: «Becatariac, alegravitez, alegravidi zerua...».

Azkeneko abestiaren kutsu zarrak ba du argia ta margoa, biotza bizkortzeko egokia da: «Gaur dala gavon gava, gaur dala gavon. Gaur eguiten xacu xangoicoa gulzon».

Asmoek idurien laguntzarekin, askozez geiago esaten dute. Ara eredu bat margo ta piparrez osatua: «olloa nola ysquin toquian guizenzen jacu losaguerian» (zortzi garren or.).

Itxaropena sortzeko ara berriz esaldi bikaiña bizpairu lerrotan. Asmoa azkar dabil ta itzak ondo lotuak daude ta ba dijoa ain arin elburu baten billa:

«ostaturic ezpada Belengo errian
zeruko Jauna dago lecu guztian
ordua etorri da esposso maytea
seynonec xaio bear dau xocudi atea» (zortzi garren or.).

Itz laburrekin zerbait oso zaila ere esan diteke San Jose'ren ize-na zanpatu gabe:

«Josephe dichossoa amaren espossoa
ezta Jesusen aita bana ordecoa» (emeretzi garren or.).

Esaldi batzuek idazlearen eskutik datozkigu, ur garbia iturritik bezala, alai ta bizkor, jausika, ots atsegiña ateratzen dula. Ara eredu aipagarri batzuek:

«Doa guztia dator zeruti» (bigarren or.).

«Xaingoicoa biz zurequin» (zortzi garren or.).

«Auxe dala Zeledon artu baita ez emon» (amairu garren or.).

«Berbooc eder aoan orapiloa colcoan» (amalau garren or.).

«calchapotat emen leizque bocaduon bategaiti» (amasei g. o.).

«ene xana ta ene edana urarequin ogia» (amazazpi garren or.).

«penitentzia eguite ori eztoc ynsaur salsea» (amazazpi garren or.).

Asmoa, arin asko dijoa itzari beti ondo lotua, ezerren utsunerik euki gabe. Mailla sendoan daude idatziaik lerroak. Idazleak esaeran itxurari asko begiratzten dio eta bear bezala zaintzen du.

Argiñak arria leuntzen duen bezala, gure idazleak ere ebakitzen ditu esaldi ta lerroak. Itzen egokitasuna ezin da ukatu. Orregatik esan dezakegu antzerki ontan iru berexitasun ikusten ditugula; asmo boro-billak, itzen egokitasuna ta ulertzeko errextasuna, ori dana piparrez ta gazi gezaz ondo bildua dagola.

EUSKAL IZKUNTZARI BURUZKO KEZKAK

Antzerkian erabilitako euskara ikusita bizpairu kezka sortzen zaizkigu.

Lenengoa auxe da: ze euskalkiko euskara darabilki idazleak? Gipuzkera edo Bizkaera?

Aditzari begiratuaz, Bizkaiko kutsua dauka (dot, neban, evan, deust, deuzten, deusut eta abar).

Itzen sustraiei buruz, gogotik esango genuke izen asko gipuzkeraz eta bizkaeraz idatziaik daudela ta beste asko bitara.

«Bizkaeraz edo gipuzkeraz idazten aldu?», orrela esandako galdera ez dugu batere maite. Ez bizkaeraz, ezta ere gipuzkeraz, esango genuke. Idazleak etzuen euskalki bat aukeratu bestea uzteko. Garbi garbi auxe esango genuke: «Arrasate'ko euskaraz alegintzen da idazten». Arrasate'ra, Bizkaiko euskeraren beso bat sartzen da ta toki bertara urbiltzen zaigu gipuzkera. Baiñan Barrutia'ren euskara ez da oso osoa Bizkai'koa. Len esan dugun bezala: itz asko Bizkai'koak, aditza batez ere, besteak Gipuzkoa'koak, beste asko batuak eta baita erdara kutsuzko beste asko. Berez euskara ori Arrasate ibarrakoa dugu.

Bigarren kezka gogorragoa da: zer esan nai dute erdal itz guzti oiek, euskara izkuntzan? Barrutiak darabilkin izkuntza euskara al da?, edo beste izkuntza berri bat sortzen ari al zaigu? Erdal eta euskal itzak eta esaldiak idazki berdiñean erabiltzen ditula, bi izkuntzekin bat egiten al du?

Erabiltzen ditun erdara kutsuzko Itzak, euskara jatorrez beste tokitan esaten dituzte.

Arrasate'n garai ortan, bi izkuntzak solasean era bat nasten al

zituzten? Antzerkian, esaldi osoak daude erderaz. Ara sailla:

«Esso si» (zortzi garren or.).

«Zierra zierra, guerra, guerra» (amaika garren or.).

«Quién eres tú» (amairu garren or.).

«Tiene lindo barrigón» (amairu garren or.).

«No se hizo para los asnos» (amasei garren or.).

«Lindo mozo... de vino blanco un pichel» (amazazpi garren or.).

Ikusten denez, Barrutia'ren jokabidea nunbait erriko oitura da. Eredu oiekin ikusten dugu nola erriak nasten ditun bi izkuntzak, solasean.

Baiñan erria, bata besteakin nasten, orrela dabillega, oartzen al da bi izkuntz ezberdinak erabiltzen ditula? Edo oitura berri orreri itsu itsuan jarraitzen al diote?

Gure galdera auek arront soillak dirudi, baiñan etorkizunari buruz garrantzi aundikoak dira

Euskalerritik urruti, beste tokitako gertakizunak ikusita kezka bat sortzen digute.

Gaurko ingeles izkuntza, nasketa bat dugu, adibidez: amaika garren gizaldian normantarrak joan zitzaizkien anglotarregana. Batzuek prantzezez zekiten, besteak anglosajon izkuntza zebilkiten. Biyek nastu ziran eta iru gizaldi geroago izkuntz berria sortzen da: inglesa. Eun itzetik, ba ditu 50 frantzesez.

Beste aldetik, Iparameriketan entzun oi ditugu filipinoak berezko duten solasa egiten. Ustekabean, tagalooa ta erdera nasten dute ta ez dakite gazteak biyek batean erabiltzen dituztela.

Ba dakigu Barrutia'ren izkuntza euskara dala: batez ere aditza ta joskera. Baiñan erdara eta euskara, ain errax nasten ditula ez al dioa izkuntz berri bat sortzera? Emeretzi garren gizaldiko euskalzale garbitzallerik gabe, nolakoa ote ziteken gaur euskeraren etorkizuna?

Kezka guzti abek agertu bearrak genituen. Barrutia'ren antzerkia irakurtzerakoan sortu zitzaizkigu eta nolabait gaia aipatu bearra zegoen. Gaiñera gai onek merezi zuen zertxo bait astintzea. Egoki litzake Barrutia'ren lana garai berdiñeko beste idazlekin neurtzea. Neurketa ortik euskal irakaskintzak argia sortu lezake.

Oar guzti oiekin ez diogu Barrutia'ren lanari garrantzirik kendu nai. Aberastasunak ikusi ditugu ta ez dira gutxi. Egin digun mesedea aundia da. Zoritxarrez etziran asko izan gizon onek bezala lan egin zutenak. Euskalerriak esker asko ematen dizkio. Barrutia'ren emaitza ez da txikia; izkuntzaren alderdi egokiak, baita ere sortzen dizkigun beste kezka auek. Aurreratzeraz laguntzen digute ta euskal izkuntza zer den obeto jakitera.

IDAZKIAREN AZTERKETA

Barrutiak egindako lanaren garrantzia ta aberastasuna aipatzen ibilli gera. Nolako mugak ditun ere ikusi bear ditugu. Ez diogu orrekin garrantzirik kendu nai. Egokitzen zaion neurria artu bearra zaio.

Alderdi egokien artean, aundienak abek dira: antzerkiaren garra ta margoa, itzen bizkortasuna. Bi gai alkarrekin jolasten erabilli ditu, bat aurtxo jaiο berriaren esanaia, bestea Arrasate'ko gaiak. Bi gai oiek naikoak dira, entzuleak, begi belarri, adi eukitzeko.

Beste alderdi arrigarria auxe dugu: nolabait Belen eta Arrasate iriak alkartzen ditula. Orrela entzuleak errex jarraitzen dute batetik bestera.

Gaiñera aize txarrezko indarrak ta erriko kideak arpegi agirian erakusten dizkigu.

Esaldiak ere ez dute galerik. Bear dana, bizkor, labur eta argi esaten zaigu. Iztegia asko aldatu ta berritzen du. Itz geienak ez dira geiegi erabilliak. Itz jator berexi batzuekin, gure esker miña irabazi du.

Antzerkian euskal kutsua ta giroa sortu du: gure eresia ta jauziak erabiltzen ditu. Nolakoa zan abestiaren otsa ez dakigu. Zoritxarrez, itzak bakarrik arkitu ditugu.

Gure ustez laguntzarik ederrena sinismenari eskeñi dio. Antzerki osoaren elburu auxe da; erriaren sinismena esnatzea ta zuzpertzeta. Alderdi ontatik arrakasta oso osoa lortu du. Agertzen ditun txosten aberatsak asko dira: Sendi Santuaren jokabide garbia, ostatuko zekentasuna, deabruen aserrea, erriaren piperra, artzaïen nortasun berexia, biotz garbien itxaropena ta Maria'ren esku zabala.

Lanaren mugak nolakoak dira? Gure ustez lan osoan, egokitasunaren aldetik ez diogu neurri berdiña ikusten. Erdi aldean gazi-geza ta bizkortasuna aundia dago, bukaera berriz il xamarra arkitzen dugu.

Izkuntzaren aldetik berriz errexegi jokatzen du batzuetan. Lerroen neurria, lasai ta gogora datorkion bezala, dabilki: Izkien ezberdintasunak errexkeria aitortzen du. Izkuntza garbitzen eta txukuntzen ez du asti aundirik galdu. Elburu nagusi bateri eusten dio danez gaiñ: erriaren alkarizketaren bizitasunari. Izkuntzaren egokitasunari ez dio beti esku berdiña ematen.

Ezin dugu ukatu Barrutia'ren lana laburra dala. Lan txiki bat egin zuen idazleak. Ez da lan aundi ta zabala.

Ez dugu uste, elertiaren alorrean goi goi maillako lan bat danik, ezta gutxiago ere. Beste argitasun ta esku berexia bear du or goien aipatzeko. Idazle onak gaiñera, goi mailla ortara irixteko asko idatzi bear du.

Balñan antzerki au ez ba dugu euskal elertiaren neurri gabeko izar bat, bitxi eder bat dugula, aitortu bear. Bitxia da ta bakarra. Garai ortako antzerkiak ez ditugu eskuko beatzekin zenbatzen; euskal antzerki baiño beatz geiago dauzkagu. Orregatik bitxia deitzen dugu.

Goi goi maillean ez ba dugu jasotzen, euskal elertiaren alorrean, erri elertiaren mailan, garrantzi aundienetakoa ematen diogu.

Erri maillako elertian giltzarri dugu: erriarentzat egiña ta erriari bete betean esaten dion lana. Alderdi ortatik muga gutxi arkitzen diogu. Erriaren muiña ta gizonak, diran bezala azaltzen dizkigu.

Gure ustez mailla ortan bertan lana egiteko gogoia erakusten digu idazleak. Goi maillako elerti lana egiteko asmoakin etzan asi idazten. Erriarentzat idatzi du: Gabonetako Itz eskutua azaltzeko. Elburu ori era bat bete du. Orregatik, gaur bertan nabaritzen dugu emaitza orren itzala.

IDAZLEAREN ITURRIAK

Barrutiak berez sortu al zuen antzerkiaren orma edo beste nun-baitetik artu al zituen asmoak?; galdera au ere egin bearra zegoen.

Idazkian, zeetasun batzuek ikusita, egitan, kezkek sortu zaizkigu.

Lenengo kezka: zergatik ipintzen ditu idazleak orrialdearen ezkerrean ta orrialdearen erdian antzerkilarien izenak eta antzerkiaren goraberak erdaraz? Ori ikusten errex da; begiratu bat eman orrialdiei: «cantan dentro» (lenengo o.), «Salen Sn Joseph y la Virgen» (bigarren or.), eta abar. Orrrelako argibiderik, bat bakarrik ere ez dago euskaraz.

Bigarren kezka: nundik atera du idazleak «pastoreac» itza (eme-zortzi garren or.). Euskalerra osoan larretokietan artaldekin dabillan gizonari «artzai» deitzen diote. Barrutiak bi aldiz erabiltzen du «pastoreac»: bat Aingeruak esaten du Belen'go artzaiak aipatzean (Belengo pastoreaq), bigarren Mariak Belen'go artzaiei oyal ondoan arrera ematerakoan (pastoreac ea varrura).

Barrutiak bein bakarrik erabiltzen du arzain itza, bertako ardi-mutilla aipatzerakoan; «arzain ignorantea ninzan biurtu» (amazazpi garren or.).

Zergatik batzuek «pastoreac» eta bestea «arzain»? Korapillo au askatzeko asmo bakarra bururutzen zait. Izan leike Euskalerriko erri batzuetan, gaztetxoak erdal antzerkiak azaltzea. Ikastetxetan Gabonetan erderaz antzeztuko zituzten. Maiz saioak egin ondotik, etxeraterakoan askotan euskaraz mintzatuko ziran. Norberan lana antzerkian aipatzerakoan, Belen'go artzai gaia zebilkin, «pastorea» izango zan. Mutil orrek ba zekin berez etzala artzaia. Euskalerriko artzaiak berriz etzeukan, dan bezala agertzeko beldurrik.

Asmo onen aria urrutira dijoa ta zerbaiten berri ematen dit: egi-lleak beste antzerki batzuek erderaz egiñak begi aurrean euki zitula, beste euskarazko au idazteko. Andik artuko zituen gaia ta esaldi batzuen kutsua.

Bestela, kaleko gizon batek, nola zezakean idatzi ain zuzen Teologiaren esaldi zorrotzak?

Gabonetako antzerki ugari zeudela, garai artan, Españi'ko Iarru zabalean, naiko garbi dago.

Iparameriketan nago ta ibilli naiz garai artako paper zarren billa liburutegietan. Ez dut ezeren aztarnik jaso. Nere ustez, Euskalerriko erdi maillako ikastetxetan bear dituzte euki Gabonetako antzerkien paper sail, zar eta berri. Bide ori ikusi bearra dago ta zerbaiten usaia azalduko da. Euskalerritik urruti nabil lan ori egiteko.

Idazlearen erdarazko oarrak, «pastorea» itzak eta teolojizko esal-

diak oñarri mardula ematen didate gauza bat garbi oldozteko: Barrutiak, erdarazko Gabonetako antzerkiak begi aurrean euki zitula.

Orrekin ez dut esan nai dan dana erderatik artu zunik. Eliza kutsuzko gaiari izan leike idazleak pipar gazi-gezak eranstea.

Ori gure asmoa da. Azken itza esateko aztarna garbiak bear. Gaur ez ditugu oraindik arkitu.

Besten lanak eskuan eukitzeak ez du ezer esan nai gure idazlearen aurka, gutxiago oraindik antzerkiari indarra kentzeko. Barrutiaren antzerkiak, asieratik bukaera arte, ba du atsa, otsa ta esku berexia. Bestengandik argia artzen dula, Arrasate'ko eskribauari ez diogu itzalik egin nai. Idazleak, txostenak emendik eta andik artzen ditu ta daukan eskuakin sortzen du idazki egokia. Idazkiek idazlearen eskua aitortzen dute.

Beste zerbaiten argi berririk euki ezkeru, idazlearen eskuaren egokitasuna obeto ezagutu dezakegu.

Argitasuna sortzeko, beste bide berria aukeratu bear: Barrutiak nola eskuratu zuen eskribau izatea? Izan leike gazte garaia elizgizonen artean igarotzea. Jesus-lagunen artean edo Dominikanotarren artean apaiztutzeko asmotan ibilli ote zan? Zer egin zuen eskribau izan aurretik, jakiteakin asko irabaziko genuke. Orduan jakingo litzake, nolako ikasketak eta nun egin zituen. Urrats asko egin bearrak daude, galdera oneri erantzun zuzena emateko.

IDAZLEAREN LAN BAKARRA

Gaur arte Barrutia'ren beste lanik ez dugu ezagutzen. Antzerkia irakurrita ezin dugu burutik kendu galdera bat: ain ederki euskaraz egiten duen gizonak nola etzuen beste idazkirik utzi? Antzerki onen ondotik izan leike oso erantzun txarra jasotzea eta geroztik ixilik gelditzea.

Barrutia'ren antzerkia arkitu genduen paper zarren bilduma ederrean, beste bi idazki euskaraz eskuratu genituen; beste idazki guztiak erdaraz idatzita zeuden.

Bi euskal idazki oiei buruz, Juan Karlos Gerrak berri batzuek Azkue'ri bidaltzen dizkio, 1899'ko ilbeltzaren amaieran egindako eskutitzan. Eskutitz ori Euskalzaindiak jasota dauka. Erderaz ala dio Gerra'ren eskutitzak: «Ba daude beste olerki txar batzuek euskaraz. Orregatik ez dizkizut bidali».

Bi idazki oiek zarrak dira; olerkiak ditugu. Batek maitasuna gaia dabilki. Olerki orren bi eskualdi ditugu; bat zarra, bestea berria.

Bigarren paper zarra, Xabier'ko San Franzisko'ri eskeñitako abestia da; amar lerro mordoak dauka. Nere ustez, Xabier'ko San Franzisko'ren euskarazko abesti zarrena dugu. Orrela asten da: «Orienteco Apostoloa».

Maitasun gaiazko olerkiak 31 lerro mordo dauka. Aslora orrela du: «Gausacho bat nai nuqe...».

Etzaizkit iduritzen Barrutia'ren eskutik atera direnik. Itzak, euskara, euskalkia, idazkera, papera, beste garai bateko antza daukate.

Xabier'ko San Franzisko'ren abestia gipuzkera garbian idatzita dago.

Maitasuna gaia daramakin papera, amazapi garren gizaldikoa dala, esango genuke.

Bakoitzari bere astia datorkionean aztertuko ditugu.

Danez aurretik, Barrutia'ren lana dabilkigu eskutan. Len bait len argitaratu bearra dago: Datorren urtean, 1982, idazlearen jaiotzaren Iru garren gizaldia bai dugu. Garai ortarako Euskalerriko liburu apaletan egon bear luke. Gai au Ameriketa osoan ezagutu dezaten, liburua zabaltzekotan gabiltz.

A M A I A

Bi gai antzerki batean alkartu ditula, elizakoa ta pipar gisakoa, idazleak elertiko goi mailara jaso du idazlan au; bide berri bat iriki du.

Beste aldetik ezin dugu beñere aztu Gabonetako antzerki bat dugula. Antzerki gai au, oso erabilia izan zan gizaldi luzetan, batez ere Espaiñi zabalean.

Erdiaroko gizaldietan sortzen da, Artzaiaren Otsa izenarekin. Liburu zarrak diotenez, Toledo'ko eliz nagusian eman zioten asiera.

Amabost garren gizaldian berriz, ats berri bat artzen du antzerki-ko gai onek. Juan de la Encina idazleak, «Eguberriko Olerkiak» delako antzerkia idatzi zuen, Alba'ko Duke jaunaren elizarako. Lan ori 1492 garren urtean aurreneko aldiz, Gabonetan antzeztu zuten. Gerotik oitura ori asko zabaldu zan. Idazle ezin obeak, gai oneri buruz antzerki berri asko osatu zituzten.

Gaur oraindik Leon dalako lurraldean basoko elizatxo batzuetan Gabonetako antzerkiak azaltzen dituzte.

Barrutiak antzerkiari jauziak eta abestiak eransten dizkio. Oitura zarra dugu. «Villano» delako jauziak aipatzen ditu. Espasa iztegiak, erdal jauzi oneri buruz zerbait garbirik esaten du. Berez erriko dantza dugu, baserritarrak egiten zutena; eskuekin anak jotzen zituzten, baita lurra ere, zutitzen ziran, baita eseritzen eta jauzi berexiak egiten zituzten.

Gabonetako gaiak, jauziaren izenak eta antzerkiaren erdal kutsuak, Barrutia'ren idazlana Espaiñi'ko oiturekin zertxobait lotzen dute.

Dana dala, idazleak antzerki au idatzi zuen Gabonetako eliz giroa pixturik eukitzeko.

Ez dugu uste Gabonetako antzerki au aspaldiko emaitza daukaunik, gaurkoa baizik. Beti eukiko dula garrantzia, esan nai dugu orrekin.

Arrasatek oso bizirik euki bear luke antzerki au ta erriko bitxi bat bezala urtero berritu bear lukete. Beste mailla batean, gure elizetako aldare nagusien antzekoa dugu; bitxi bat euskal gizartearentzat. Gaiñera antzerki onen bitartez Gabonetako gertakizunari margoa ematen zaio ta errian bizkor ta bizirik eukiko genituzke Parregillea, Marigavon, Aseginzoro ta abar. Gaiñera, antzerkiaren itz eta esaldi jator asko entzungo genituzke bein eta berriz karrikan, erriko elkarizketan.

Gaur len bezala, antzerki onek sinismenaren morroi azaldu nai du, baita erriaren atsa berpiztu.

Barrutia'ri eskeñi dezaiokegun omenaldi bikañena auxe da: antzerki au urtero Arrasate'n antzezte ta ekiñaldi orrekin erriaren arnasa bizkortzea. Barrutia'ren itzalak ba dauka zeregina gaur bertan.

IZTEGIA

(Léxico no verbal)

- A -

- abere (19) (21)
abogaduric (5)
abondo (12)
acari (13)
acean (6)
Adan (2)
 Adanec (2) (24)
 Adanen (19) (20) (21)
adimentua (4)
adin (14)
adisquidea (13)
afari (12) (22)
afaritaco (11)
agaca (8)
agan (9)
 agana (16)
agoriq (18)
agudu (16)
agintaria (9)
agura (10)
aicona (15)
aimbat (1) (2) (10) (11)
ain (4)
aisiac (19)
aita (19)
aje (12)
ala (1) (2) (5) (11) (15) (16)
alamenean (8)
alariq (22)
alavearen (22)
alboan (17)
alcate (5)
aldamenean (13)
alderuz (17)
aldi (14)
aleguerea (11)
aleyzaco (16)
alper (13)
- altua (20)
 altuaq (2)
 altuco (2) (3)
 altuti (2)
altivo (10)
ama (3) (19)
 amachoc (24)
 amea (3)
 amaren (19) (19)
 amari (24)
amabi (26)
amar (11)
amorioa (9)
 amorioac (9) (20)
an (6) (9) (10)
anchinaco (10)
andi (3) (11) (17) (19) (22)
 andia (9) (17)
 andiac (5) (10)
andra (10) (14) (22)
 andrea (22)
 andreaq (22)
angeru (16) (18)
 anguerua (16) (18)
 angueruen (21)
 angueruzco (16)
anteoxoac (17)
aoa (8) (12) (16)
 aoan (8) (14) (16) (17) (18)
 aoco (17)
 aoti (21)
apagozo (13)
ara (6) (8) (9)
 araco (12) (16)
araisteco (15)
ardan (13)
 ardanza (15)
arean (19)

areanzaz (8)
aren (2) (5) (17) (18)
 arenecat (3)
argui (17)
 arguiac (21)
ari (8)
Arichavalcho (17)
arina (5)
arpeguico (18)
arrain (11)
arraca (8)
arran (7)
arrasaldeco (17)
arren (2) (9) (10) (11) (21)
 (ez) arren (2) (8) (23)
artean (10) (21)
 artera (9) (18) (25)
arzain (17)
Ave (3)
asco (9) (16) (20) (21)
 ascogaz (6)
 ascoren (20) (24)
 ascoz (9) (16)
asconarraren (24)
aseguin (23)
Asmodeo (10) (11)
atea (7)
 atean (8)
 ateti (9)
au (1) (7) (10) (12) (13) (17)
 (18)
 auxe (5) (12) (13) (13)
ausente (4)
auzia (10)
avegui (16)
ay (4) (8) (10) (10)
aya (24)
aycora (8)
aymbat (25)
azamarchoa (24)
azean (11) (19)
 azera (18)

azquero (17) (24) (25)
azur (15)
 azurrac (14)

- B -

Baal (11)
bacarra (2)
 bacarrac (18)
 vacarriq (25)
bacochoa (12)
 bacoizac (5)
bada (9)
baga (9) (14) (15) (16)
 vagariq (25)
 Vaguea (19)
 vagueac (19)
bai (11) (13)
 bay (19)
baita (13)
balerosoa (11)
baltz (13)
balle (24)
bana (12) (19)
bano (10) (14)
 vano (26)
baquea (9) (9) (14)
bardin (12) (14)
barreru (15)
barri (17) (18) (21) (25)
barruan (17)
bassallo (5)
bat (4) (7) (10) (15) (17) (21)
 (22) (23) (26)
 vat (3) (17) (20) (23) (25)
 (26)
 vateco (7)
 baten (9) (11) (18) (19) (20)
 vaten (9)
 bategaiti (16)
 bateganlc (19)
 vategainic (3)

- batera (16)
batere (3) (11)
vatore (4)
bateti (18) (20)
baturic (19)
bazter (9)
 bazterren (9)
bearrac (24)
becatu (2) (19)
 vecatua (21)
 becatuaren (9)
 becatuti (19)
becatariac (9) (9)
beguea (10) (13)
begui (13) (18)
 beguia (12) (16)
 beguiac (24)
 beguietaco (17)
 veguizcoriq (24)
bein (24)
Beisteguico (17)
Belengo (7) (16) (18) (19)
 Velengo (6)
 Belenera (6)
 Belen (3) (9)
 Velenen (7) (10)
Belial (11)
beloa (5)
Beltranicocho (16)
bera (3) (8) (19) (26)
 berau (17) (19)
 beragaterren (16)
 berezat (25)
 beronec (22)
 beroneq (23)
 beroni (23)
 verari (14)
 veroni (21)
berandu (7)
berba (23) (24)
 berva (18)
 berbo (14)
bere (7) (11) (16) (18) (22)
berri (18)
berua (12) (17)
Berzebu (10) (11)
 Verzebu (13)
beste (15) (17) (23) (25)
 besteac (26)
 besteganeco (11)
 bestela (22)
 bestelaco (14)
 besteren (25)
 besteric (9)
 besteti (18) (20)
betea (9) (11)
beti (2) (5) (7) (8) (13) (14)
 (16) (23)
 veti (2) (10)
bi (18) (23) (24)
 vi (6)
 biq (12)
 biren (19) (26)
blar (17)
bide (12)
 vide (25)
 bidea (25)
 videan (6)
bildurrago (12)
bioz (9) (17)
 vloz (7) (19) (25)
 vioza (18)
 viozac (20) (25)
 biozeco (14)
 viozoc (9) (21)
 viozeco (4)
 viozerean (23)
 viozetaco (21)
blrao (11)
biz (8)
brioa (10)
bocadu (16)
borondate (6) (22) (23)
 borondatea (22) (23) (25)

vorondatea (3) (6)
bularchoarean (23)
burloy (18)
buru (18)
burua (10)
 buruan (18)
buscanz (11)
calchapota (16)
campoetaco (16)
campaezat (7)
canaberan (17)
cantore (16)
cantu (18)
capazu (13)
caridadea (14)
cascavel (17)
casi (18)
cazadorea (13)
cazara (13)
causa (21)
causia (4)
censoa (5)
cer (4)
 zer (3) (4) (6) (10) (13)
 (16) (17) (20)
cerureaniq (3)
 zerureaniq (20) (25)
chacolin (11) (17)
chacurrac (5)
chapadamente (5)
Charles (12) (15)
 Charlesicocho (17)
chatto (8)
chiquirritico (21)
choria (16)
clarua (2)
colcoan (14)
contentu (16)
 contenturiq (7)
 contentuz (9)
contra (10) (11) (12)
contua (22)

contuan (11)
conturiq (17)
copiaria (13)
corpuz (12)
costuan (11)
criadu (7) (23) (24)
cruela (11)
culpa (10) (20)
 culpac (2)
 culparic (2)
 culpea (3) (22)
cumearen (19)

- D -

da (ta) (2) (5) (11) (12) (23)
 dan (4)
dambolinac (25)
danza (5) (25)
 DANZARI (13)
 danzea (5)
danzeagati (5)
deabruc (15)
Daviden (1)
demonio (9)
dempora (16) (21)
 demporan (18)
desbergonzadu (8)
desdichadua (10)
deseadua (18) (24)
desgraciadu (18)
desiertura (17)
dicha (23)
dichossoa (19)
dilixentea (13)
diruac (5)
 diruagaltic (5)
doa (2) (21)
 doea (13)
doncella (3) (4) (10)
 Donzella (19)
dromedario (19)

- duda (16)
 dudariq (3)
dulzea (13) (16) (17) (21)
 dulzeagoa (16)
Durangon (18)
ea (21)
eder (14) (18) (21)
 ederra (5) (18) (24)
 ederrac (16)
 ederraq (18)
 ederriq (16)
 ederragoa (26)
edana (17)
egoac (16)
egua (11)
 eguian (3)
egun (26)
 egungo (21)
eguzqui (2)
 eguzquia (19)
eji (20)
emazte (15)
 emaztearen (13)
embajadea (3)
emen (9) (16)
 emenche (11)
emeti (6) (9) (14)
emperadore (5)
ene (3) (4) (5) (6) (10) (11)
 (12) (13) (14) (15) (16) (17)
 (18) (20) (22)
 enea (14)
enganaduric (13)
entresilua (13)
eperic (6)
eperrac (16)
erdian (19)
ere (5) (18) (21)
eroan (13) (22)
errai (10)
erratuay (25)
erreala (14)
errementari (18)
erregue (19)
 erreguea (21)
 Herreguea (10)
erri (7)
 errian (7)
esa (17)
esanac (3)
esclavea (3)
escuari (16)
escuetati (23)
esposea (1)
 espossea (4)
 esposso (7)
 espossoa (19)
 esposseagan (4)
Espiritu Santuac (5)
esne (22)
 esnea (24)
esque (23) (25)
esse (19)
 esean (21) (22)
 essean (7)
 esetiq (12)
 eseco (22)
 esseco (14)
eta (14) (20)
estandartea (11)
ete (ote) (3) (8) (16)
eunda (11)
eurac (3) (5)
examinadore (16)
exercituac (16)
ez (9) (10) (13)
 eze (6)
 ezer (9) (24)
 ezta (3)
ezcarazean (21) (22)
ezcutaria (18)
ezpabere (13)
eztimacaza (18)

- F -

favore (5) (10) (25)
fiesta (13) (25)
flema (8)
franco (16) (17)
frifai (13)

- G -

Gabriel (17)
gaiti (17)
gaizac (15)
gaizqui (10)
gaiztoan (13)
ganean (19) (22)
garau (12)
garbia (4)
 garvira (9)
garraz (10)
gartuanari (13)
garvizalea (19)
gaua (9)
 gava (25)
 gavaren (11) (15)
 gavaz (12)
 gavon (25)
gaur (12) (25) (26)
 gaurco (12)
gaztana (11)
gentea (11)
gloria (9) (17)
gogoa (9)
gogorrac (12)
goiza (7)
 goiseco (17)
 goizean (13) (18) (24)
gorri (18)
golpe (22)
gorpuza (18)
gozo (24)
grazia (13) (23) (25)
 graziac (6)

gu (6) (8)
 gurea (17) (21)
 guerea (15)
 guganic (13)
 gueugana (17) (21) (24)
 gueugaz (25)
 guri (20)
guchi (22)
 guchiagati (22)
gueraziac (19)
guero (18) (24)
guerra (II)
 guerran (14)
guesta (14)
guidalbi (18)
 guidalgozo (18)
guizon (5) (13) (16) (25) (26)
 guizona (10) (16) (20)
 guizonac (10)
 guizonic (3)
 guizonaren (4)
 guizonarenzat (9)
gura (2) (5) (6) (8) (10) (11)
 (18) (21) (24) (25)
gure (2) (3) (5) (8) (11) (13)
 (16) (17) (18) (19) (20) (21)
 (22) (25)
gurea (17) (21)
 gureac (17)
 guerea (15)
 guretacoizat (24)
guzti (23)
 guztia (2) (12) (13) (16)
 (20) (22) (23) (25)
 guztiac (5) (10) (17) (19)
 (20)
 guztiaq (18) (24)
 guztian (7) (11) (16) (18)
 guztico (5) (9) (21)
 guztien (9) (10)
 guztioc (16)
 guztiraco (6)

guztiti (11)
guztiz (13) (17)
guzurriq (11)

- H -

Herodes (11)
Herreguea (11)

- I -

icara (18)
ycara (12)
ignorantea (17)
imposible (4)
imposibleac (3)
imposibleriq (3)
indar (9)
infante (19) (25)
infantea (20)
ynfantea (19)
ynfanteoni (11) (25)
infanteac (19)
infernuco (9) (13)
ynfernua (10)
ynfernuco (13)
ingura (12)
inoc (4)
ynoc (17)
ire (10) (11)
yre (14)
lru (15) (19)
yru (11) (12)
isua (2)
ysurriq (2)
izar (19) (26)
izorra (4)

- J -

Jaincoen (18)
jamas (18)
Jaun (2) (3) (18)

xaun (9) (19) (20) 21) (22)
(23) (25)
Jauna (5) (7) (13)
xauna (3) (5) (20)
xaunary (5)
xaunari (6)
Jaunaren (3) (4)
xaunaren (6) (18) (24)
xaunarequin (19)
Jente (12)
Jentea (21) (21)
Jerusalengo (16)
Jesus (21) (24)
Jesusen (19)
Jesusa (5) (6) (9) (11)
Jesussa (24)
Jesusicori (23)
Josef (4) (6)
Josefe (1)
Josephe (19)

- L -

labur (4)
lagun (10) (12)
lagunac (16)
lagunaq (17)
lapurretea (21)
